

# ek!

## ...eta kitto!

Euskara Elkartearen astekaria

2020ko irailak 18 • 1155. zenbakia

# ZINEMIRA SARIA

## SARA BILBATUA EIBARTARRARI

 <p><b>EUKi</b> higiezin zerbitzua</p>	<p><b>ADMINISTRAZIOA</b></p> <ul style="list-style-type: none"><li>✓ Aurrekontua</li><li>✓ Kontabilitatea</li><li>✓ Jabeen balzarretan izatea</li><li>✓ Aktak egitea</li></ul>	<p><b>KUDEAKETA</b></p> <ul style="list-style-type: none"><li>✓ Obrak</li><li>✓ Lizentziak eta laguntzak<ul style="list-style-type: none"><li>• Eusko Jaurlaritza</li><li>• Udala</li></ul></li></ul>	<p><b>LEGE AHOLKULARITZA</b></p> <ul style="list-style-type: none"><li>✓ Jabetza horizontala</li><li>✓ Ezordaindutako enerreklamazioa</li><li>✓ Sormen berriko komunitateen eraikitzea</li></ul>	<p><b>24 ORDUKO ZERBITZUA</b></p> <p>Zure eskura jartzen dugu zure komunitateari dagokion informazio guztia urteko egun guztietako 24 orduan</p>
<b>KOMUNITATEEN ADMINISTRAZIOA</b>		<b>30 URTETIK GORAGOKO ESPERIENTZIAK BERMATZEN GAITU</b>		
<p>943 200 358 - <a href="http://www.eukicomunidades.com">www.eukicomunidades.com</a> - ARRETA PERTSONALIZATUA ETA TELEFONUZ: 09-14 00 eta 15-30-19-30</p>				



# IRAZABAL

---

## clínica dental



**Ainhoa Zulueta**  
Doktoroa

Odontologian Lizentziatua.  
**Euskal Herriko Unibertsitatea.**  
Unibertsitate Adua Aho Kirurgian,  
Periodontizian, implantologian.  
**Leongo Unibertsitatea.**  
Diplomatua Aho Kirurgian,  
**Bartzelonako Unibertsitatea.**  
Hortz-Estetikari Diplomatua,  
**Madrigo Unibertsitate Konplutentsean.**  
Hortz-Estetikari Diplomatua,  
**Autran Institutua, Bartzelona.**  
Etengabeko Formakuntza,  
**New York-eko Unibertsitatea.**  
Okulazioan Graduondoa,  
**Anibal Alonso Doktorea.**

**Asteleheneretik ostiralera:**  
**8:00**etatik **22:00**etara  
**Zapatuetan:**  
**10:00**etatik **14:00**etara

## Irribarreetan adituak

### Etor zaitez gu ezagutzera

**Zure beharretara egokitutako finantziazio-planak**

**JARRAI IEZAGUZU**

**f Facebooken: Clínica Dental Irazabal** [www.clinicairazabal.com](http://www.clinicairazabal.com)



**IRAZABAL**  
clínica dental

Julian Etxeberria, 12 - 1 esk. - **20600 EIBAR**  
Tel.: 943 20 85 52 - [www.clinicairazabal.com](http://www.clinicairazabal.com)



## Urteetan irakasle batek erasotu ditu bere ikasleak

Hasiera idaztea beti izaten da zailena, batez ere amorrutik denak bota nahi dituzunean. Askotan ondo gaudela uste dugu, baina pixkanaka ezezaguna den amorrutik batek astiro erretzen zaitu eta ezin duzu su hori itzali. Honen ondorioz, hau idaztea burutu zait.

Testuinguratzeko, orain dela pare bat urte eraso bat jasan nuen Eibarko eskolako irakasle baten partetik. Erasoa kudeatzea jadanik zaila bada, erasoari eman zitzaion zaintza eza edo egon ziren zabartasun anitzak kudeatzea zailagoa da.

Eibarren urteetan eman dira honelako erasoak eskola bateko irakasle baten partetik eta bakarrik jakin dutenean ere, nik dakidala, ez dute ezer egin. Hau da guk nahi dugun hezkuntza sistema? Erasoa baten aurrean zurrumurru mingarriak esan eta gainera, eraso horren hedapenean laguntzen duten irakasleak? Ildo beretik, bere kapritxo bakarrik izan nintzenaren aitzakiarekin, eskolaz ez zuen gehiago ikertu, nahiz eta eraso gehiago egon diren. Horrez gain, ezin da onartu funtzionario batek aurrerakari asko izan arren, lanean jarraitzea, baina guztiz onartua dago.

Gauza asko daude aldatzeko, baina behar batean zentratuko naiz. Protokoloak behar dira eskolatan ematen diren erasoei nola erantzun jakiteko, kontuan hartuta erasoak anitzak izan ahal direla eta horiek denak barnebidu behar dituela. Gainera, protokolo horien prestakuntzan ikasleen partaidetza aktiboa izan beharko litzateke eta ikasleen onospena edukitzea ezinbestekoa da. Bestalde, protokolo eredu bat daukat (hainbat protokolo biltzen ditu) eta bidaliko dizuet. Honez gain, hezkuntzarekin zerikusirik ez duen beste arlo bati protokoloa aktibatzea eskatuko nieke egoerak eskatzen duen bakoitzean, ez baitute egiten. Herritarrei segurtasuna bermatzeko omen daude, ea noizbaiten hori errealitatea bihurtzen den. Gainera, hainbat esaldi mingarriak izan daitezke eta eraso bat jaso duen bati ezin zaio edonola tratatu. Berdina esango nioke, berdintasun arloan lan egiten duenari. Bukatzeko, espero dut aldaketak ematea eta horrelako traturik ez jasotzea eta ez edukitzea nik eduki dudana prozesua.

Eibarko neska bat

"Kulturaren oro har belaunaldi arrakala handia sumatzen da. Gaur egun ikasleek irakurri beharreko literatur lanak ez dira guk gure garaian irakurri genituenak, adibidez, eta askotan lan horien bertsio egokituak ere eskaintzen zaizkie. Hori gehiegi da! Baina arazoa heldu den lekutik heldu da. Etorkizunerako auto-genozidio bat da. Artearen mundua gauza exotikoa edo frikia bilakatzen doa gero eta gehiago. Artean aritzeak ez luke arraroa izan behar, baina hala da. Oso zaila da ikuspuntu hori aldatzea estatu honetan. Gaur egun kimera bat. Horren oinarrian arazo politikoa dago. Trantsizioetik hona sokatira bat izan da, talka bat. Espainian kohesiorik ez dago eta ezinezkoa da kohesiorik lortzea kulturari dagokionez. Eta hemen Euskal Herrian ere oso zaila da, dena kutsatua dagoelako. Gainbehera baten kronika da. Nik uste dut joera dela gero eta irizpide gutxiago izatea. Esaten dute interneten dagoela dena, baina hor ezinezkoa da lan sakoan behar da informazioa interpretatu eta kanalizatzen ikasteko".

IMANOL RAYO, zinemagilea

"Pobreziatik eta bortizkeriatik ihesi zatoz, paperik gabe, diru gutxiarekin, eta egoiliar moduan lana aurkitutakoan pozik sentitzen zara, ia eskertuta. Geroago konturatuko zara esplotatu zaituztela. Orduan antolatuta eta aurre egiten diozu. Esplotazioaren bidez aberasten dira. Gainera, gu salbatzera etorriko diren emakume zuri pribilegiatuaren begirada paternalistarako ez dugu behar, aliatuak nahi ditugu. Beraiek deitutako elkarretaratzeetara denok joaten gara, baina gutxi batzuk datoz gureetara. Esaten digute denoi eragiten diguten aldarrikapenen alde egin behar dela borrokan lehendabizi eta, ondoren, gutxiengoz arduratu. Gutxiengoz hartzen nauzun bitartean arazo bat daukagu. Uler ezazue ondokoak: kide migratzailearen eskubideak defendatzen badituzue, aldi berean zaintza duinaren alde egingo duzue, zeuok zahartzen zaretenerako".

CARMEN JUARES, etxeko langile egoiliarra

## Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

**NAHASTABAR.-** Nahaste-borraste, iskanbila, zalaparta. "Kale kantoi horretan goizaldeko bostetatik aurrera nahastabarra beti".

**NAHASTAU.-** Gauza desberdinak elkarrekin batu. "Olixua ta binagria ez ibilli alperrik nahastatzen, ez dira alkartuko".



Euskara Elkartea

**ARGITARATZAILEA**  
...eta kitto! Euskara Elkartea  
**HELBIDEA**  
Urkizu, 11. 20600 Eibar  
**TELEFONOAK**  
943 20 67 76 / 943 20 09 18  
603 598 285  
**FAXA** 943 20 28 72  
**ASTEKARIAREN E-MAILAK**  
erredakzioa@etakitto.eus  
komunikabideak@etakitto.eus  
publizitatea@etakitto.eus  
**ELKARTEAREN E-MAILAK**  
elkartea@etakitto.eus  
normalizazioa@etakitto.eus


**ERREDAKZIO-KONTSEILUA**  
Ana Aizpurua, Itziar Albizu,  
Ekhi Belar, Jose Luis Gorostegi  
eta Silbia Hernandez  
**ADMINISTRAZIOA**  
Marisol Uriarte  
**KOORDINATZAILEA**  
Ana Aizpurua  
**ERREDAKZIO-BURUA**  
Silbia Hernandez  
**DISEINUA**  
Maku Oruezabal  
**MAKETAZIOA**  
...eta kitto! astekaria

**ARGAZKI ARLOA**  
Malen Jainaga eta  
Malen Illaramendi  
**HIZKUNTZA ARDURA**  
Juan Andres Argoitia eta  
Maider Aranberri  
**PUBLIZITATEA**  
Itziar Albizu eta Belen Ulazia  
**TELEFONOA**  
943 20 67 76  
**AZALEKO ARGAZKIA**  
Sara Bilbatua  
**BANAKETA-ARDURA**  
Idoia Labado

**TIRADA**  
7-860 ale  
**INPRIMATEGIA**  
GERTU koop. (Oñati)  
**COPYRIGHT-A**  
...eta kitto!  
**LEGE-GORDAILUA**  
SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679

("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)





## Erabilitako bizikleta azoka egingo da bihar Untzagan

>>> Mugikortasunaren Europako Astearekin bat eginik, Udaleko Ingurumen Sailak hainbat jarduera antolatu ditu eta horien berrri eman zuen barixakuan Jon Iraola Ingurumen saileko zinegotziak. Aste honetan Nordic Walking hastapen-ikastaroa egin da eta, horrez gain, 8 kilometroko bi ibilaldi antolatu dituzte (bihar 10:00etan Untzogatik abiatuko da lehena). Parte hartzeko aurretik izena eman behar da, 943 708408 telefonora deituta edo ingurumena@eibar.eus helbidera idatzita. Horrez gain, bihar, 10:30etik 14:00etara, erabilitako bizikleta eta patineteak saltzeko azoka egingo da Untzagan eta bizikletak konpontzeko doako tailerra eskainiko dute. Eta bihar Autorik Gabeko Eguna ere izango denez, Udalbus zerbitzua doakoa izango da.

## Eskolara buelta segurua eskatzeko greba egin zuten Hezkuntza arloko langileek martitzenean

>>> Eskolara itzulera "segurua eta adostua" eskatzeko, martitzenean greba egin zuten Hezkuntzako langileek. ELA, LAB, CCOO, UGT eta ESK sindikatuek deitutako grebakizan zuen jarraipenean ezberdintasun handia dago, datuak ematen dituen iturriaren arabera: sindikatuen arabera, %70eko erantzuna izan zuen eta Hezkuntza Sailaren arabera, berriz, parte-hartzea %41,9koa izan zen. Hainbat ikasle mugimenduk ere bat egin zuen grebarekin eta mobilizazioak EAEko hiriburuetan egin zituzten. Eskaeren artean ratioak jaistea eta langile kopurua handitzea



daude, klaseak emateko gutxieneko baldintzak bermatzeko eskaeraz gain.

## Egogaineko langileek 23rako kontzentrazioa deitu dute

>>> Egogain erresidentzia-ko langileek irailaren 23an, 11:30ean, Egogainen bertan kontzentrazioa egiteko deia egin du Gipuzkoako Sendien Elkartearekin eta Nalua Eibar-ko Talde Feministarekin bat. Deia astelehenean egin zuten, pentsiodunen mobilizazioan, eta pentsiodunei ere gonbitea egin zieten. Astelehenean azaldu zuten, "bi urte daramatza-gu borrokan, bi urte non eta Aldundiak gure eskaerei entzungor egiten dien. Aldundiak inposaketaren bidea hartu du lan baldintzak kaskartuz, pertsonon bizitzaren azken etapan merezi dugun arreta duina alde batera utziz. Zerbitzu publikoa enpresa pribatuen esku utziz, langile kopurua murriztuz eta kantitatearen aldeko apustua eginez, kalitatezko arreta ezi-



nezko bilakatuz. 2 urte non eta 18 lankide joan zaizkigun. Hala ere, borrokari ekiteko konpromisoari heldu dio zaintza lanetan jarraitzen dugun emakumezko kolektiboak. Borroka honi jarraipena emateko indar metaketaren bidea landu nahi dugu. Ageriko arrazoiengatik, zuzenean eragiten diguten kolektiboak baikara, Egoitza ereduaren aldaketari eragiteko".

## RUFINA ALVAREZ PECIÑA

10. urteurrena: 2010-IX-13

"ZU GOGORATZEAK  
POZTASUNA DAKARKIGU"

Etxekoak





## Igeriketa-ikastaroetarako osasun protokolo berria ezarri dute

>>> Eibarko Kirol Patrona-  
toak igeriketa-ikastaroetarako  
prestatu duen osasun-protoko-  
loaren berri eman du bere web-  
gunean (www.eibarkirola.eus).  
Ordu-tarte bakoitzean talde-  
kopuruen eta talde bakoitzeko  
partaideen murrizketak egingo  
dituzte, alde batetik. Ikasta-  
roen antolaketan, bestetik, 1,5  
m-ko distantzia hartuko dute  
kontuan eta eskuak etengabe  
garbitu beharko dira hidro-  
gelarekin. COVID-19arekin  
bateragarriak diren sintomak  
izanez gero, ezingo da ikasta-  
roetara joan, eta “zalantzarik

izanez gero, kiroldegira joan  
aurretik tenperatura hartzea”  
gomendatzen dute. Ikastaroa  
hasi baino 15 minutu lehen-  
gora arte ezingo da instalazioe-  
tan sartu, eta sartzeko ezarri-  
tako kontrol-prozedura igaro  
beharko da nahitaez: maskara,  
tenperatura hartzea, eskuak  
garbitzea, etab. Aldageletan  
egoteko denbora ahalik eta la-  
burrena izango da. Dutzak eta  
lehorgailuak ezingo dira era-  
bili. Eta maskara eta txankle-  
tak nahitaez erabili behar dira  
aldageletan eta igerilekurako  
sarbideetan.

## 2022ko azarora bitarteko epea Txontako etxeak biziberritzeko

>>> Eusko Jaurlaritzak be-  
rroneratzeko eta eraikinak  
birgaitzeko jarduerak finan-  
tatzeko auzoari emandako  
dirulaguntzaren zenbatekoa  
handitzea erabaki du eta,  
beraz, lanetarako laguntza  
2.300.000 eurokoa izatetik  
2.535.000 eurokoa izatera  
pasatu da. Izan ere, Eusko  
Jaurlaritzaren Kontseiluak,  
uztailaren 21ean egindako bil-  
kuran, baimena eman zion In-  
gurumen, Lurralde Plangintza  
eta Etxebizitza Sailari Eibarko  
Udalari emandako zuzeneko  
dirulaguntza 235.000 eurotan  
handitzeko. Horrekin batera,

etxeak zaharberritzeko epea  
luzatzeko erabakia hartu dute  
eta, horri esker, auzoko bizila-  
gunek 2022ko azaroaren 30era  
arteko epea izango dute obrak  
amaitzeko. Proiektu horren  
baitan 221 etxebizitza daude:  
Txonta kaleko 2, 3, 5, 15, 17, 25,  
29, 36, 38, 40, 42, 46, 48, 50 eta  
52 zenbakiak, hain zuzen ere.

Erabaki horiek Udalak es-  
katutakoari erantzuten diote.  
Izan ere, Jon Iraola Hirigintza  
zinegotziaren berbetan, “bizi-  
lagunak eta ni neu ere ikusten  
ari ginen proiektua behar beza-  
la burutzeko denborarik gabe  
geratzen ari gina”.



II. urteurrena  
2018-IX-22

**Jon**  
Gure  
artean  
jarraitzen  
duzu.

**GELAKO  
GURASO,  
SEME-ALABA  
ETA LAGUNAK**

FUNEUSKADI  
Grupo Asistia

FUNERARIA  
MUGICA  
Funeraria

TANATORIO EIBAR

TANATORIO CREMATORIO  
ELGOIBAR

24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951  
www.funeuskadi.com

Eibar: Otaola, 27	Elgoibar: Xixilion, s/n. SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)
Eibarko bulegoa: Bidebarrieta, 20	Ermuako bulegoa: Marqués de Valdespina, 16

Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao  
Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao



## Sua piztu zen eguaztenean mendian, Txarakuan

>>> Sua piztu zen eguazten eguerdian Txarakuako mendi-hegal batean eta, horren eraginez, saihsbidea itxi behar izan zuten. Eibar, Azpeitia eta Zarauzko suhiltzaileak aritu ziren elkarrekin lanean, sua lehenbailehen amatatu nahian eta, sua kontrolpean izan arren, iluntzean lanean jarraitu zuten, Udaltzaingoarekin, Ertzaintzarekin eta Aldundiko Mendietako eta Natura ingurunekeo Sailarekin koordinatuta, badaezpada, sua berpiztu ez zedin. Suaren ondorioz hainbat zuhaitz errepidera erori ziren eta horregatik itxi zuten saihsbidea, "Aldundiko teknikariek lurraren balorazioak egin eta honen egonkortasuna bermatu arte". Suak inguruko txabola batzuk erre zituen eta Eibarko toki batzuetan argindar barik egon ziren pare bat orduz. Hala ere, suak ez du kalte pertsonalik eragin. Ertzaintza eta Udaltzaingoa sutearen arrazoia ikertzen ari dira.

## COVID-19a zaharren egoitzetan

>>> Eider Mendoza foru bozeramaileak jakinarazi duenez, une honetan bost dira COVID-19 kasu aktiboak dituzten egoitzak: Donostiako Hermano Garate - San Ignacio (2), Hernaniko Santa Maria Magdaleña (39), Errenteriako Jesusen

Bihotza (17), Donostiako Alai-Etxe (8) eta Donostiako Zorroaga (1). Beraz, 67 COVID-19 kasu aktibo daude adinekoen egoitza-zentroen erabiltzaileen artean, horietako bat bera ere ez Eibarko zaharren egoitzetan, azken datuen arabera.

## Errebal kalea ibilgailuentzat zabalik dago astelehenetik

>>> Astelehenaz geroztik dago zabalik errepidea Errebalen eta ibilgailuak "normaltasun osoz" zirkulatu daitezke, Errebalen ez ezik baita San Agustin eta Bidebarrieta kaleetatik ere. Errebal kalea berrurbanizatzeko beha-

rren ondorioz, ibilgailuek ezin izan dute errepide zati hori erabili udaz geroztik eta horrek inguruko trafikoari ere eragin dio. Errepidea zabaldu arren, espaloiak egokitzeko beharrea jarraitzen dute.



## Miren Gallastegi Arriolaren tokian Legebiltzarrean

>>> Azken udal hauteskundeetan Antzuolako zinegotzi tokia lortu zuen Miren Gallastegi eibartarra (PSE-EE) legebiltzarkide izango da legegintzaldi berrian, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio sailburu izateko. Iñaki Arriola alderdikideak lagatako lekua beteko du. Beraz, eibartar bat joan eta beste eibartar batek hartuko du haren toki Legebiltzarrean. Berarekin izango dira beste bi eibartar: Eneko Andueza taldekide sozialista eta EAJ-PNV alderdiko Eva Juez.



# ANTONIO GONZALEZ GUERRERO

5. urteurrena: 2015-IX-20

*"Denbora aurrera badoa ere,  
gure gogoan jarraitzen duzu"*

ETXEKOAK






## T. Etxebarria Sarietarako hautagaitzak urriaren 14ra arte aurkeztu daitezke

>>> Martitzen goizean aurkeztu zuten Toribio Etxebarria Sariaren 30. edizioa Miguel de los Toyos alkateak eta Marisa Arriola BIC Gipuzkoako zuzendari kudeatzaileak. Edizio hau beste batzuetan baino beranduago egingo da, COVID-19aren ondorioz. Eta, horrekin batera, bada beste berritasunik, “Especializazio estrategikoa” izeneko sari berri bat emango da-eta.

Udalak eta BIC Gipuzkoak sustatutako Toribio Etxebarria Sariak bi kategoriatan, “Enpresa-asmoak” eta “Enpresa berria” izenekoetan banatzen dira. Kategoría bakoitzean 10.500 euroko saria banatzen da eta, diruaz gain, irabazleri laguntza, prestakuntza eta aholkularitza programetan parte hartzeko aukera ematen zaio. Horiekin batera, garapen teknologikoan edo nazioartekotzeko prozesuan laguntza

behar duten ekimenezko beste sari batzuk ere banatzen dituzte. Aipatutakoez gain, edizio honetan Eibarko Udalak bi sari berezi emango ditu, “Eibarresa enpresa” saria eta “Especializazio estrategikoa”. Biak jatorria Eibarren duten edo Eibarren kokatzeko konpromisoa duten enpresei zuzenduta daude. Enpresa horiek merkatuari balio-proposamen bat egingo diote, eta enplegua sortzeko eta inbertsiorako potentziala izan behar dute. Honetan ere, kategoría bakoitzean 10.500 euro emango dituzte eta, BIC Gipuzkoaren bidez, prestakuntza espezializatua eskuratzeko aukera izango du irabazleak. Sari buruzko argibide guztiak [www.toribioechevarria.com](http://www.toribioechevarria.com) helbidean daude eskuragarri eta hautagaitzak aurkezteko epea urriaren 14an amaituko da.



## Azken asteotan ez dugu izan positibo berri bariko egunik

>>> Eguenean jakinarazi zituzten datuen arabera, azken 24 orduetan 16 pertsonak eman dute positibo COVID-19angure eskualdean: 9 kasu zenbatu dituzte Eibarren, 4 Ermuan, 2 Deban eta bakararra Elgoibarren.

Bezperan (eguztenean) 11.125 PCR proba egin ziren EAEn eta, haietatik, 579 positiboak izan ziren. Datuak lurraldeka begiraturaz gero, Araban 131

positibo antzeman dituzte, 252 Bizkaian, 188 Gipuzkoan eta beste zortzi Euskaditik kanpo bizi diren pertsonetan. Ospitaleen egoera dela eta, COVIDaren ondorioz 49 lagun ospitale-ratu zituzten eguztenean: 55 lagun daude ZIUen.

Goiko grafikoan uztailaren 11tik hona Eibarko eboluzioa nolakoa izaten ari den ikus dezakezue.

## Etxebizitza hutsen gaineko zerga bikoizteko eskaera

>>> 2021eko tasa proposamenak aurkeztu berri dituzte Udalean eta, Udal Gobernuaren tasak izoztearen proposamenaren aurrean, EH Bilduk etxebizitza hutsen gaineko zerga bikoiztea eskatu du, “etxebizitza hutsak merkaturatzeko”. Urtarrileko datuen arabera, gure herrian 1.018 etxebizitza huts daude.



# MAIKA SAN VICENTE MURO

10. URTEURRENA: 2010-IX-6

**ZURE irribarre eta samurtasuna betirako izango dira GURE ARTEAN.**

Zurg koadrilakoak





## Orain dela urtebe horrelakoak ginen

Legarreko jaietako edizio berri bat ospatu zuten. Kofradia Egunak eta Arrate izenekoen ospakizunak edarto girotu zuten eguna. Untzagak Debabarreneko Azoka Ekologikoa hartu zuten. 47 parte-hartzaile izan zituen 24. Simon Aldazabal igoerak. Ibai Diezek irabazi zuen Asola Berrin jokatu zen Arrateko Amaren hiru-txirlo tiraldia. Escuderia Eibarko Narbaiza-Etxeberria bikotea nagusitu zen Asturiasko Printzesa Rallyean. Euskeraren transmisioa errazteko infografiak prestatu zituzten Debabarreneko udalek. Esperientzia Eskolako matrikulazioa zabaldu zuten. Kezka Dantza Taldea Biharrian elkartearen egoitzara aldatu zen. Bazkideen lanen erakusketak zabaldu zuen kurtsoa Topalekuan.

1- Asola Berriko Ibai Diezek irabazi zuen Arrateko Amaren tiraldia. 2- Legarreko jaietako Kronoeskillaria jokatu zen laugarrenez. 3- Euskeraren transmisiorako Estilografico enpresak sortutako bideo laburrak aurkeztu zituzten. 4- Arrate izenekoek euren egunaren 23. edizioa ospatu zuten. 5- Azoka Ekologikoarekin hasi zen Debabarreneko VIII. Astea. 6- Simon Aldazabal Sarian bi emakumezko bakarrik hartu zuten parte.





**A**rraroa egingo zaie askori azken 86 urtetan gure artean izan ditugun kongregaziokoen agurra. Baina gure herriko kale horrek ez du izena aldatuko. Lau apaiz eta anai batek osatzen zuten parrokiako boskotea azken aldian, adinean ere aurrera; bokazio faltak, gainera, erreleborik eza ekarri du. Erroman bultzatu dute kongregazioak ere aurretik hausnartzen zuena eta erabakia “batzarrean” hartu dute. Datorren domekan agur esango dute Azitainen (11:00etan) eta San Agustinen (13:00etan). Eta hurrengoan, hilaren 27an, emango dute azken meza Karmengo parrokiaren. Bestelako agurrik ere pentsatuta zuten, baina gaur bizi dugun egoerak ez die ezer berezirik prestatzen lagatzen.

#### 1934tik Eibarren

86 urtetan izan dira gure artean. 1934ko uztailaren 24ko dokumentu batek baimena eman zien fundazioa Eibarren egiteko, eta handik ia urtebetera, 1935eko apirilaren 24an onepenen kanonikoa jaso zuten. Karmeldarren ordenaren paperek diotenez, Bihotz Sakratuaren Ezekiel aita izan zen bultzatzaileetako bat; Gipuzkoako arduraduna zen bera eta sasoi hartako eliz-agintariengan eragin zuen, batez ere Mateo Mujika orduko Gasteizko apezpikuaren inguruan, “langile eta industria giroarekin batera, erlijioaren arloan ere fede sakona erakusten zuen Eibar hartara” karmeldarrak ekartzera.

Lehenengo komunitatea, hainbat gorabehera eta izan zituen arazoei aurre eginez, Txontako sarreraren ezarri zen, kale horretako 5 zenbakian aroztegi bezala erabiltzen zuten etxe-finka batean. Erlijio-gurtzak egiteko kapera txiki geratu zitzairen eta handik sei urtera, “Urkizuko iturritik bi pausora” zegoen beste eraikin txiki batean hartu zuten leku, gaur egun arte egon direnaren justu aurrean. 1941eko abuztuaren 15ean ezarri ziren egoitza eta kapera berriak. Sasoi

# Karmeldarrak badoaz Eibartik

Adinean aurrera. 80 urtetik gora dituzte herriko behe aldeko parrokiako bost kideetik hiruk. Azkenean ordenarekin adostu eta Eibar lagako dute hilaren amaieran; irailaren azken domekan eskainiko dute agurreko meza. Jose Luis, Juan Carlos, Julio, Guillermo eta Javierrek azken urteotako ingurunea lagako dute. Askok ondo gogoan izango dute eurek egindako lana.



Juan Carlos, Jose Luis, Guillermo, Julio eta Javier parrokiaren atarian.

horrek ere ez zuen luze iraungo, hurrengo urratsa gaur egungo eliza eraikitzea izango baitzen. 1950eko urtarilaren 10ean hasi zituzten lan horiek handik sei urtera, 1956an, amaitzeko. Urte horretako uztailaren 1ean egin zuten inaugurazioa, karmeldarren eliza izanik San Andres parrokia nagusitik lehenengoa banatzen Eibarren, “gutxi gora-

behera 10.000 eliztar hartzeko ahalmenarekin” orduan ziotenez, batez ere herriko behe aldeko eliztarrei zerbitzua eskaintzeko.

Beste sei urte itxaron behar izan zuten, 1961eko urriaren 1era arte, mezak eta elizkizunak eskaintzeko. Handik lau urtera, 1965eko apirilaren 19an, parrokia-eskolak eskaintzen

hasi ziren estatu guztitik etorritako langileei lehen mailako ikasketen ziurtagiria lortzea ahalbidetzeko. Ondo gogoan dute sasoi hori parrokiako beterranoenak: “Inmigrazio handia izan zen sasoi hartan, asko etorri ziren gurera lan egitera aurretik eskolatik pasatu barik”. Ia bi hamarkada hartuko zituzten klase horiek, “jostekoak eta koinatzekoak tartean”. Francisca Abendibar, Dore Urbistondo, Maria Urkiola eta Guzman Garcia izan ziren lehenengoko irakasleak eta eskoletan ehundik gora ikasle izaten ziren. “Iturburuko ikastola sortu aurretik ere, hemengo lokalak erabili zituzten euskerazko klaseak jasotzeko. Eta Urkizuko eskolakoei ere eskaini genizkien behin baino gehiagotan”, dioskue sasoi hartako mugimendua gogoratzean.

#### Bizitasun handiko urteak

1970. hamarkadan eta hurrengoan, gaur egungoarekin konparatuta, bestelako giroa igartzen zen Karmengo parrokiaren bueltan. Esaterako, 1962an 13 ziren orduko karmelitak gurean. Hainbat lokal egokitu ziren, bai bulegoetarako, bai gazteen partehartzea bultzatzeko. Umeendako zinea ere eskaini zen, bi hamarkadatan behintzat, eta taberna ere bazuten. Halako batean aldaketak egin behar izan arte: zinea proiektatzen zen espazioak gaur egun dauden garajeei egin zien lekua “1992an hasi ziren berriekin”.

Sasoi hartako kultur giro bereziarekin dago lotuta, baita ere, “gurean egiten zen Eibarko Euskal Jaiaren eguneko meza nagusia”. Gazteendako antolatutako ekitaldien artean gogoratzen dute baita “Benito Lertxundi berak hemen eskainitako kontzertua; gurekin afaldu zuen gero, komunitatean”.

Aita Karmelo gogoratzen dute horrelakoak antolatzen, orduko beste “izen handiekin batera”: aita Txanton, aita Lukas, aita Angel, aita Juantxo, aita Rufino bera... Orain dela hiru urte laga zigun azken ho-



Parrokiaren fatxada azken aldian izan dituen losetekin: berde kolorekoak aurretik eta grrisak azken hamarkadan.

**“Jendeak oso ondo hartu gintuen hasieratik eta baita lagundu eta gurekin parte hartu hurrengo urte guzti hauetan izan dugun elkarbizitzan”**

rrek eta orduan iritsi zen gure aita Jose Luis, gaur egungo priore, eta berarekin osatzen dute gaur egungo boskotea Juan Carlos, Julio eta Guillermo aitak eta Javier anaiak. 1963tik daude Eibarren aita Julio eta anaia Javier, mende erditik gora, tartean aita Juliok 17 urte egin bazituen ere Altzon. Aita Juan Carlosek 18 urte daramatza gure artean. 80 urtetik gorako hirukotea Markinan karmeldarrek duten konbentora joango da. "Han lau bizi dira gaur egun, eta gurekin ia bikoiztu egingo da bizilagunen kopurua", dioskue. Bi gazteenek beste norabide bat hartuko dute: priorea Gasteizera joango den bitartean, Juan Carlosek Zornotzarako bidea hartuko du, Larreara hain zuzen.

#### Denbora berrietara egokitzen

Eliztarrekin duten hartuemanen inguruan galdetuta, "langile" hitza izan da aurrena ahotik irtetzen: "Eibartarrek ospe hori izan dute eta guk ezagutu ditugun arloetan bat etorri dira horrekin. Bai irakurketak egiterakoan, garbiketei ekin diegunean, katekesia ematerakoan... eskuzabal jokatu dute. Eta, batez ere, emakumezkoak izan dira horrelakoetan parte hartzen". Hala ere, azken aldian batez ere "jubilatua" da eliztar gehiena, eguneroko jarraitzaileak askoren kasuan. Bi meza izaten dira egunero Karmen parrokiari: goizeko 08:30etako eta arratsaldeko 19:00etako. Karmeldarren ardura dira ere Azitaingo eta Estaziño kaleko San Agustineko parrokiak. Aita

Juliok dioen moduan, "hasierako 10.000 eliztarren kopurua 3.000 inguruan kokatuko nuke nik". Igarri dute, halaber, eskaintzen zizutzen ohiko zerbitzuen jaitsiera: "Estaziño kaleko San Agustinen gaur egun ez dugu hiletarik ospatzen, bertakoek joera dutelako San Andre-sera eramateko, gero eta hileta zibil gehiago dago, bataioak iaz hamar bat egingo genituen...". Uztailaren 16an izaten da Karmengo Amabirjinaren eguna eta horren inguruan jarraitu izan dute bederatziurrena egiten, "beti ere elizaren barnean, ez dugu jairik kanporatzen". Eta urtero Sostoa abesbatzaren bisita izan dute, Gabonak baino pixka bat lehenago.

Karmeldarrak badoaz ere, izango dira eliz-zerbitzuak

parrokian. "Bi abade afrikar izango dira hemendik aurrera: aita Jacques Beningoa da eta Arraten dago bizitzen dagoeneko, santutegian. Bigarrena Malawikoa da eta biak gurera etortzea apezpikuaren ideia izan da".

#### Eraikina egoera onean

Karmen kalearen hasieran eta Iparragirrerako bidearen ondoan dagoen tenplu neogotiko estilokoa da, altuera desberdineko hiru nabeekin: oso altua erdiko eta pixka bat gutxiago albokoak, pilare batzuren bannandutako espazioan. Kristalerak ere badute bere garrantzia, izen handiko Maumejean etxearen lana direlako. Kanpo aldetik 1941eko lehenengo eraikina, aita Anakabe priore zela,



**Javier San Vicente Ruiz de Arriaga**

1946/02/10 - 2020/09/11

*"Joan banaiz ere, horrek ez du esan nahi zuekin ez nagoenik, baizik eta nire gorputzak ezin izan duela nire bihotzak betirako emango dizuena ematen jarraitu"*



zementuzkoa egin zuten batez ere. Gero, Uriarte arkitektoaren eskutik losa berdeekin jantzi zuten eta, azkenik, "losetak jausten hasi zirela-eta", orain dela 10-12 urte gaur egun duen kolorez jantzi zuten.

**Kongregazioaren ezaugarriak**  
Karmeldarrak XII. mendearen amaieran sortu ziren, Jerusalem inguruko Karmelo mendiaren inguruan, eremita bizitza onartu zuten batzuen gidaritzapean. Handik mende batera Karmelo mendia laga zuten eta, behin European ezarrita, Elias profetari izandako debozioa garatu zuten eta, aldi berean, Amabirjinaren Ordena moduan identifikatu ziren. Karmeldar Oinutsen ordenaren berezitasunetako bat da emakume bat izatea sortzaile, Santa Teresa baitute ama eta sortzaile; horrez gain, bertan



Karmeldarren elizako lehen harria ezarri zuten 1951n, eraikitze-lanei ekiteko. OJANGUREN - GURE GIPUZKOA.



Elizak 300 bat lagunentzako jarlekuak izango ditu gaur egun, "3.000 lagunetik gora hartu izan baditu ere".

emakumezkoen ordenek aurrea hartu zieten gizonezkoenoi. Santa Teresa eta San Juan de la Cruz-en jarraitzaile diren neurrian, "espiritualtasunari" ematen dioten garrantzia azpimarratzen du aita Jose Luis prioreak ordenaren ezaugarri moduan. Arraten dauden karmeldar samariarrak, bestalde, klausurako mojak dira eta beste kongregazio batetik datoz.

Agur esateko ordua heldu zaien honetan, parrokiako boskoteak eskerrak eman nahi dizkie eliztar guztiei, "zelan hartu gintuztenetik hasi eta gaurdaino. Orain arte izan ditugun harremanak galtzeko asmorik ez dugu, urrutira ere ez goaz-eta". Nabarituko da, bai, eurek lagatako hutsunea.

## MARINA CANOVAS ZARATE

ANTONIO LANDAREN ALARGUNA

(MADRILEN HIL ZEN 2020KO IRAILAREN 15EAN, 91 URTEREKIN)

**"ZURE irribarre eta samurtasuna  
betirako izango dira GURE ARTEAN"**

- ETXEOAK -



Foballari izateko ametsak ekarri du Bienvenue Biokou Eibarrera, baina bidea ez da batere erraza izan. Gineako Errepublikan jaio zen, Konakry hiriburuan. Foballzale amorratua, Marokon kirol honetan jarduteko apustua egin zuen, baina engainatu egin zuten. Horren ondoren, Gibraltargo itsasartea gurutzatzea erabaki zuen, Bienvenuek inoiz imajinatuko ez zuen bidaian. Frantziara iritsi nahian, mugaren beste alde honetan geratu behar izan zuen eta orain guztiz eibartartuta dago. Foballaria izateko ametsak, berriz, bizirik dirau.

### Ikasketak lehenik

Bienvenuek 20 urte ditu, baina liburu bat baino gehiago idazteko adina historia ditu kontatzeko. Bi irakasleren semea, guraso zorrotzek esaten ziotenari men egin behar izaten zion haurtzaroran. “Nire pasioa foballa zen eta denbora guztian foballean egin nahi izaten nuen, baina eskolako lanak egin arte gurasoek ez zidaten jokatzeko uzten”. Ozeano Atlantikoak inguratzen du Konakry eta milioi eta erdi biztanle inguru ditu. “Han ez dugu diru askorik, baina bai beste era bateko aberastasunak”, dio harro, “jendeak berba asko egiten du Afrikaren inguruan, baina estereotipoz beteriko iritziak dira”.

### Bidegurutzea Marokon

Gineako foballean hiru maila nagusi daude eta hortik behera ez dago antolakuntza handirik. Bienvenuek foball-eskola batean jokatzeko zuten eta 17 urterekin, bere herrialdeko foballean aurrera egiteko aukera urriak ikusita, atzerrira joatea erabaki zuen. “Beldurra ematen zidan txalupa batean sartu eta itsasartea zeharkatzea. Beraz, Marokon foball munduko pertsona bat ezagutzen nuenez, hara joan nintzen”, gogoratzen du. Marokon, osterara, ez zuen espero zuena aurkitu. “Pertsona hark engainatu egin nahi izan zidan”. Ez atzera ez aurrera geratu zen: etxera itzuli edo aurrera egin, eta bigarren aukera hartu zuen.

# Foballaria izan nahian

EKHI BELAR



Maskaraz gain, Gineako foball selekzioko kamiseta darama Bienvenuek.

### Itsasartea zeharkatzen

“Marokon erabaki nuen itsasartea zeharkatzea, ordura arte ez zitzaidan burutik pasatu ere egin”, aitortu digu Bienvenuek.

Egoera berean zeuden hainbat pertsonekin bat egin zuen bidaia egiteko, baina ez zuen edozein modutan egin nahi. “Hor mafia asko dago eta nik ahalik

eta modu seguruenean zeharkatu nahi nuen. Ez nuen presarik”, dio. Eta eguna iritsi zen. “Uretan sartzea kostatu egin zitzaigun, baina gero ez zen hain gogorra izan. Bederatzi ordu inguruko bidaia izan zen Malagara iritsi arte, eta lurreratu ginenean ohartu nintzen egindakoa zein arriskutsua izan zen, atzera begiratu eta itsasoa ikustean. Ez nuke berriz egingo!”, dio seguru.

### Toki bila

Hamabi egun besterik ez zitzaizkion falta 18 urte betetzeko, eta Algeciraseko adin txikikoen zentrorera eramane zuten lehenik eta Cadizera gero. “Oso zentro txarra zen”. 18 urte bete zituztenean, dokumenturik ez zuenez, ezin izan zuen bere adina frogatu eta han jarraitu behar izan zuen, lagun batek ihes egiteko aukera eman zion arte. “Auto batean bila etorri zitzaizkion eta, berarekin negoziatzen, igo eta joan egin nintzen. Orduan deitu nuen etxera Espainian nengoela esanez”. Frantziara joan nahi zuen, baina ez zioten pasatzen laga eta Gasteizen geratu zen. Gero, Eibarko familia batek bere etxean hartu zuen. Tartean, aita hil zitzaion eta ezin izan zuen agurtu. “Gogorra da hain urrun bizitzea eta familia ezin bisitatzea”, dio atsekabez.

### Eibarren geratzeko asmoz

Itsasartea gurutzatu zuenean gazteleraz ez zekien tautik ere, baina hiru urte geroago dotore egiten du. Erraztasuna du hizkuntzak ikasteko. “Ginean frantsesa da hizkuntza ofiziala, baina nik beste lau dialekto dakizkit”. Gainera, ingelesez ere ondo moldatzen da. Orain, Armeria Eskolan ikasten hasi da eta Ermuko foball taldeko aurrelaria da. “Ondo moldatu naiz hemengo bizimodura eta oso lagun onak ditut”. Hemen ikasitakoarekin eta jasotako esperientziarekin ekarpena egin nahi dio bere herrialdeari. “Baina foball talde batekin kontratua sinatzen badut, pixka bat itxarongo dut hara bueltatzeko”, dio irribarrez eta itxaropentsu.

“ N’khilinè  
Bienvenue Biokou i La  
Guinée ka nan na

“Kaixo, nire izena Bienvenue Biokou da eta Gineakoa naiz”

<<< TANTAKA '4ECO' • Xaboi eta gai ekologikoak >>>

# “Garbiketa esperientzia atsegingarria izatea nahi dugu”

TANTAKAN sartzea gozagarria da. Plazerra usaimenarentzat. Garbiketarako eta higiene pertsonalerako produktuak aurkituko ditugu bertan, baina hori baino gehiago da. Tantaka-tantaka, itsasoa sortu nahi du Ziortza Ulaziak, eta bihotzez eskerrak eman nahi die proiektu honetan bere tantatxoa jarri duten guztiei.

## Zer moduz joan da TANTAKAren hasiera?

Uztailean zabaldu genituen ateak eta ez da jende-uholdea iritsi, baina jendeak izan du dendaren berri, interesa erakutsi du, eta eurengan eta ingurukoengan hazia erein dugu.

## Zein izango da hazi horren fruitua?


Geure gorputzak zaintzeaz gain, ingurugiroa zaintzea da gure asmoa. Norbere esku dauden ekintzen bitartez lortu dezakegu hori. Tantaka-tantaka, itsasoa sortu dezakegu. Horretarako, eguneroko ohiturak aldatu behar ditugu. Gure aldetik, garbiketaren eta higiene pertsonalaren inguruan alternatibak eskaintzen ditugu. Ikusi dugunez, jendeak badu kontsumo-ohiturak aldatzeko asmoa, baina badakigu ez dela egun batetik bestera egiten den zerbaite.

## Dendara joan direnei nolako iruditu zaie zuen eskaintza?

Jendeak oso gustora hartu ditugure produktuak. Dendara etorri eta gure produktuak probatu dituzten askok errepikatu egin dute.

## Labur esanda, zer aurkitu dezakegu TANTAKAN?

Batetik, garbiketa produktuak. '4eco' markako etxeko garbiketarako eta erropa garbitzeko produktuak ditugu. Biodegradagarriak, ekologikoak, gertukoak eta animalietan probatu gabekoak izateaz gain, norberak xaboiaren usaina pertsonalizatu dezake. Etxetik ontzia ekarri eta nahi beste erosi daiteke, ontziratu gabe saltzen dugulako. Garbiketarako produktuek oso harrera ona izan dute, baina higiene pertsonalerako produktuek, eta bereziki kremek, demase-



TANTAKA '4ECO' - Juan Gisasola kalea, 6

ko arrakasta izan dute. Gainera, sasoi honetan jende askok furgonetan bidaiatzen duenez, hortzetako-pasta, xaboiak eta bestelakoak erosi dituzte eta lasaitasun osoz joan dira oporetan, naturari kalterik egingo ez diotela jakinda.

## COVID-19ak nabarmendu egin du higienearen eta garbitasunaren kontua. Igarri duzue?

Batzuetan uste okerra dago produktu ekologikoen inguruan. Batzuek uste dute ez direla eraginkorrak COVID-19ari aurre egiteko, baina TANTAKAN eskaintzen ditugun produktuak guztiz eraginkorrak dira eta, gainera, geure gorputzak eta natura zaintzeko balio

dute. Xaboi-desinfektatzaileak ekarri ditugu espreski eskuetarako eta gorputzerako.

## Horrela, behintzat, atsegingarriagoa izango da COVID-19ari aurre egitea.

Hori da! Bizitza atsegingarriagoa egin nahi diogu jendeari. Adibidez, etxeko garbiketa egiteko momentua atsegingarria izan dadila nahiko genuke, ez dadila gogaikarria izan, eta higiene pertsonalerako hartzen ditugun momentuak gozagarriak izan daitezela. Etxeko garbiketarako produktuak, ekologikoak izateaz gain, kontzentratuak dira eta horrek asko murrizten du garbitzeko behar dugun denbora.





## Euskera praktikatu nahi? Berbetan da zure aukera

Euskeraz berba egin behar duzula pentsatze hutsak beldurtu egiten zaitu: “...eta ez banau ulertzen?”, “edo nik ulertzen ez badiot?”, “hobe izango dut hurrengo baterako lagatzea, gaur gazteleraz egingo diot”. Zenbat aldiz ikusi duzu zure burua horrelako egoera batean? Bada, beldur, lotsa eta konplexuak galdu eta euskera modu natural eta erosoan, presiorik gabe eta lagun-giro atseginean erabili nahi baduzu, Berbetan programak ematen dizu horretarako aukera, astean behin elkartzeko diren mintzapraktikako taldeen bitartez.

**B**erbetan egitasmoak 19. ikasturtea hasiko du. 2002-2003 ikasturtean ...eta kitto! Euskara Elkarteak sortu zuenetik elkargune ederra eskaintzen die ahozko euskera hobetu nahi dutenei. Giro lasai eta informalean praktikatzeko aukera eskaintzen die, eta jende berria ezagutzeko aukera ere bai. Horretarako, euskeraz ondo hitz egiten dutenekin batera taldeak osatzen dira, norberak aukeratutako egun eta orduan, eta astean behin elkartzeko dira ordubete, taberna batean normalean.

### Euskeraz eroso eta lasai

“Euskera ikasteko euskaltegiak daude; mintzapraktikako taldeak euskaltegien osagarri dira, han ikasitakoa praktikan jartzeko modua, era ludikoan”, diote programako arduradunek. Taldeetan izena emateko arrazoien inguruan, berriz, de-

netarik dago: “Batzuk inguru hurbilean ez dute euskaldunik eta, beraz, ez dute euskera no-rekin praktikatu; beste batzuk jende berria ezagutzeko eta euskeraz une atsegina pasatzeko aukera moduan hartzen dute...”. Baina argi dagoena da denek dutela helburu bera: “euskeraz berba egiteko beldurra galtzea; egiteko gai ez garen hori (ogia euskeraz eskatu, harakina euskeraz agurtu, seme-alabekin euskeraz hitz egin...) pixkanaka-pixkanaka egiteko gai izatea. Nork bere errit-mora. Gainera, denok dakigu uste duguna baino gehiago!”. Talde batzuk “beteranoak” dira, esan daiteke, urte mordo daramate astero elkartzeko eta lagun-talde edo kuadrila bihurtu dira.

### Ekintza osagarriak urte osoan

Astean behin ordubete; horixe da berbalagunei eskatzen zaien



gutxienekoa, baina horrekin nahikoa ez duenak ekintza osagarrietan parte hartzeko aukera zabala dauka. “Urrian hasi eta ekainera arte ekintza ugari antolatzen ditugu: irteerak, sukaldaritza-tailerrak, ikastaroak, tailerrak familientzat... Euskera praktikatzeko gain, jende berria ezagutzeko aukera polita izaten da”, diote elkarte-

tik. Aurten, COVID-19ak egitaraua zertxobait aldatzera eta moldatzera behartu ditu, baina “aurreikusita dugun guztia egiten ahaleginduko gara”.

Izena-emateko (doan da): [www.etakitto.eus](http://www.etakitto.eus) webgunean edo datozen egunotan banatuko ditugun esku-orrietan. Informazio gehiago: [elkartera@etakitto.eus](mailto:elkartera@etakitto.eus) / 943200918 ■



# Gurasoak Berbetan, familia-giroa euskalduntzea helburu

2010ean, familia askok agertzen zuten arduraz jabeturik, Gurasoak Berbetan egitasmoa jarri zuen martxan ...eta kitto!-k, gurasoen artean euskeraren erabilera areagotzeko asmoarekin. 2 eta 8 urte bitarteko umeen gurasoei zuzenduta dago egitasmoa, eta antolatzaileek argi dute: "hizkuntza modu natural eta erosoan erabiltzea onuragarria da edozeinentzat, baita gure seme-alabentzat ere. Beraz, eurak hiztun oso izatea nahi badugu, gurasoon ardura ere bada ume horien eredu izatea".

## Familiarentzat ekintza ugari

Gurasoak eta seme-alabak elkartzen ditu ...eta kitto!-k Gurasoak Berbetan egitasmoaren barruan antolatzen dituen ekintzetan: eskulantailerrak, txangoak, sukaldaritza-saioak... "Une dibertigarria izaten da, polita, gurasoak seme-alabekin batera jolastu egiten dute, eskulanak egiten dituzte... eta euskeraz, jakina". Ekintzetan parte hartzea doan da, baina horietan parte hartzeko programan izena ematea ezinbestekoa da.

## Talde naturaletan mintzapraktika

Euskera praktikatzeko norbanako moduan eman daiteke izena eta norberari ondo dator kion egun eta orduan elkartzen den talde batean sartu. Baina kuadrillak edo guraso-taldeek ere talde moduan eman dezakete izena, "umeen zain ikastetxe edo musika-esko-

la kanpoan dauden gurasoek egin dezakete mintzapraktika, edo parkean elkartzen direnek; lehenik eginda dagoen taldea aprobetxatzen da, eta helburu txikietatik hasi daiteke: adibidez, asteke egun jakin batean ordubete gordeko dugu tarte horretan euskeraz egiteko...", diote Elkartetik. Egitasmoa zeini zuzenduta dagoen galderari, hona ...eta kitto!-ren erantzuna: "euskeraz berba egiteko ohitura berreskuratu nahi duten gurasoentzat, familia-giroa euskaldundu nahi dutenentzat, seme-alabekin euskeraz gehiago hitz egin nahi dutenentzat...".

## Izen-ematea, hainbat bidetatik

Izena emateko Eibarko 2 eta 8 urte bitarteko haurrek informazio guztia biltzen duen esku-orria jasoko dute eskolan bertan. Horrez gain, [www.eta-kitto.eus](http://www.eta-kitto.eus) webgunean ere eman daiteke izena eta, informazio

gehiago behar izanez gero, [elkartera@etakitto.eus](mailto:elkartera@etakitto.eus) helbidean edo 943200918 telefonoan eska daiteke.

Datorren astean eskola kanpoan egongo da ...eta kitto! sorpresa eta guzti: **Irailaren**

**21ean** (astelehena) Argatxan eta La Sallen. **Irailaren 22an** (martitzena) Urkizun eta San Saburrun. **Irailaren 23an** Aldatzen eta San Andresen eta **irailaren 24an** Urkin eta Amañan. ■

Gabonetako OTARRA  
**1.500 €ko**  
balioa duen Otarra  
1.000€ produktuetan eta 500€ko erosketarekin  
Zaketa 2020ko abenduaren 20an egongo da  
Prezioa: 1€  
Zbk:  
Euskara Elkarteak

## Gabonetako otarreko rifak salgai

Bizi dugun egoera kontuan harturik inoiz baino lehenago ekin dio ...eta kitto!-k gabonetako otarrerako rifak saltzeari; astean birritan ari dira kalera irteten ...eta kitto!-ko langileak. Rifa bakoitzak euro bat balio du eta abenduaren 9an zozketatuko da El Corte Inglesek emandako otarra (1.000€ produktuetan eta 500€ko erosketa-txartela).



Marokoko gerraren kontrako manifestazioa Eibarren.

ARGAZKIA: EIBARKO PSE-EE

## “Alkate txikia” gogoratzen

Datorren asteko egunean, hilaren 24an, Udalbatzak Alejandro Telleria alkate izandakoaren zeregina errekonozitzeko saioa egingo du Coliseo antzokian, arratsaldeko 18:00etan hasiko den ekitaldian. Aforo murriztua izango du eta gonbidapenez osatuko da: zinegotziak, Alejandroren familia, herriko entitate nagusienetako ordezkariak, herriko alkate izandakoak, Artxibokoak eta ikerlariak izango dira bertan.

Alejandro Telleria Estala, “Ali”, Pagaegi izeneko etxean jaio zen, 1876ko irailaren 24an. Gurasoak, Manuel Telleria eta Rosa Estala soraluzetarrak, Eibarren finkatu ziren eta bost seme-alaba

izan zituzten; Alejandro zen nagusiena. Alejandrok kezka eta ametsez betetako herri batean iragan zituen haurtzaroa eta gaztaroa. Ideologia sozialistakoa eta gazte-gaztetatik urte haietako borroka sozial

eta politikoan murgildua, Aki-lino Amuategiren lagun handia zen. Oso dotore janzten zen beti eta sonbreroa erabiltzen zuen. 1920ko apirilaren 1ean udal hauteskundeak izan ziren eta sozialista eta errepublikarrak

izan ziren garaile. Udalbatza hamazazpi zinegotzik osatzen zuten, besteak beste, Alejandro Telleria sozialista, herriko alkate izendatua izan zena. Bere burua kargurako gai ikusten ez bazuen ere, herriaren alde

**OHARRA**  
Banaketa-zerrenda berritzen ari gara. Aldizkaria jasotzeko edo jasotzen jarraitzeko eman izena beheko zerrendan

**...eta kitto!**  
Astekariko

Izen-abizenak

...eta kitto! **astekariko**

### ETXERIK ETXEKO BANAKETA-ZERRENDA BERRITZEN DIHARDUGU

Eibarko etxeetan aldizkaria **JASOTZEKO** edo **JASOTZEN JARRAITZEKO** zerrendak bete behar dituzue.

Hurrengo asteetan kale hauetako pegoretan jarriko dira orriak:

**JULIAN ETXEBERRIA - ZULOAGATARREN - SANSABURU - ERREKATXU - BIDEBARRIETA - URTZAILE - ARANE**

**banaketa.etakitto@gmail.com**



gogor lan egingo zuela zin egin zuten, beti interes publikoei begira eta justiziaren alde.

Telleriak oso sasoi gorabeheratsua eta gatazkaz betea bizi izan zuen lehenengo agintaldian, bai maila politikoan bai ekonomiko eta sozialean. Alejandro hainbat bilera antolatu zituen patronalaren eta langileen artean akordio batera iristeko. Udalak, halaber, lursailak laga zituen doan Armen Probalekua handitzeko, armagintza-jarduera sustatze aldera. Herriko egoera ekonomiko larriaren ondorioz, Udalak Coci-nas Populares izeneko ekimena bultzatu zuen: udaletxe barruko patioan, egunero banatzen zen janaria herriko familia guz-tientzat. Herrian, sukalde haiei "Rantxua" deitzen zieten.

### Gatazkaz betetako sasoi

Herriari zegozkion arazoez gain, Telleriaren Udalbatza kezkatu zuten beste gai batzuk hauek izan ziren: Estatuak bizitza demokratikoari egiten zizkion murrizketak, konstituzio-bermeak etetea eta arbitrariotasuna arau gisa ezartzea.

Telleriaren lehenengo alkate-tza-aldia laburra izan zen. 1921eko azaroan, Eibarko Gazte Sozialisten Elkarteak orri solte

bat argitaratu zuen, ustez Ejer-tzitoaren kontrako hitzekin eta Alkatezaren zigiluarekin. Gazte Sozialisten zortzi gazte atxilotu zituzten eta prozesu judizialean zehar alkatea deklaratzera deitu zuten.

1921eko azaroaren 11n Gobernu Zibilaren ofizio baten bidez, Instrukzio Militarren Epaitegiaren beste ofizio baten berri ematen zen, adieraziz Telleria alkate kargutik erretiratzea ezarri zela. Kargua laga zuen alegatu bat eginez Udal askatasunarekiko errespetua exijituz eta udalari eskatuz "garrietako zailtasunei buru eginez" bere lanean jarraitzeko. Marcelino Bascaran jarri zuten haren orde. Alkate kargugabetua grabadore-ofiziora itzuli zen. Dos de Mayon zeukan tailerrera, Faustina Agirre emaztearekin bizi zen etxe berean.

1931ko apirilaren 12an Primo de Riveraren diktaduraren osteko lehen udal hauteskundeak egin ziren. Handik egun bira, 1931ko apirilaren 14an, II. Errepublika aldarrikatu zen Eibarren, eta bi egun lehenagora arte alkate izandako Timoteo Zubiatek Alejandro Telleriaren eskuetan laga zuen alkate-makila eta udal-gobernu berria sortu zen. Maiatzean, behin-



Alejandro Telleria alkatea Eibarri emandako hiri titulua eskuan duela.  
ARGAZKIA: OJANGUREN. EIBARKO UDAL ARTXIBOA

behineko Gobernu errepublikarrak "Hiri guziz eredugarria" titulua eman zion Eibarri, erregimen berria aldarrikatu zuen lehenengo herria izateagatik. Indalecio Prieto Ogasun ministroak dekretua irakurri zuen Udaletxeko balkoitik.

Egoera politikoa tentsio handikoa zen: 800 langabe baino gehiago zeuden Eibarren, mobilizazioak jernalak handitzeko eskatuz... Euskadiko udalek dimittitu egin zuten 1934ko irailan, eta gobernadore zibilek gestorekin ordezkatu zituzten. Hasieran, Telleriak ihes egitea lortu bazuen ere, beste eibartar batzuekin batera harrapatu eta Iruñako Ezkaba mendiko San Kristobaleko gotorlekura eramane zuten.

Telleria atzera ere alkate zereginetara bueltatu zen 1936an

eta, frankistek 1937ko apirilaren 26an herria bonbardatu eta hartu zutenean, Eibarren zegoen. Prentsan berari buruz agertzen den azken erreferentzian agertzen da alkateak bilera batera deitu zituela orduko zinegotziak.

1938ko urrian berak eta Simon anaia txikiak bazuten Frantziara pasatzeko dokumentazioa, baina tropa frankistek autobusa geratu eta atxilotu egin zituzten. Burgosko gartzelara eraman zituzten. 1939ko abuztuaren 28an, Alejandro Telleria Burgoseko Ospitale Nagusira eraman zuten eta, bi hilabeteren ostean, urriaren 24an hil zen. Gero jakingo zuten, ospitaleko mojek esanda, bakarrik hil zela. Inork ez daki non dagoen lurperatuta. ■

# zarelakogara

Izen-abizenak \_\_\_\_\_ Helbidea \_\_\_\_\_  
Tfnoa / emaila \_\_\_\_\_ NAN \_\_\_\_\_  
Jaiotze data \_\_\_\_\_ K/K zenbakia \_\_\_\_\_

### Bazkidetza edo ekarpenak egiteko

NORK	EKARPENA	ERRENTAN ITZULKETA	BENETAKO KOSTUA
Urmeak (16 urtetik beherakoak)	5 €	1,5 €	3,5 €
Ikasle, langabetu, jubilatuak	15 €	4,5 €	11,5 €
Langileak	45 €	13,5 €	31,5 €
Beste ekarpen batzuk	160 €	45 €	115 €

\* Urteko kopuruak dira

...eta kitto!  
Euskara Elkarte

Urkizu 11  
943 20 09 18 - 943 20 67 76  
elkartea@etakitto.eus

## Lau sagardotegi egon ziren Eibarren

Lau sagardotegi egon ziren Eibarren: "Buru" sagardotegia (Aranarena), Txontan, Barakaldon eta Maltzagan. Fundizioa ere bertan zegoen.



Sagardo tolarearen irudikapena egiten duen karroza desfilea, Eibarko Haurren Euskal Jaian (1966). JUAN SAN MARTIN.



**Gaspar Alvarez Lucio**  
(1918 – 2012)

Aita Gallartatik etorri zen Eibarrera lanera. Umetatik Eibarko giroa zuzenean ezagutu zuen eta ekonomia eta politika arloan garai gogorrek etorri zirenean berak parte hartze zuzena izan zuen. 14 urterekin Secretario de los Pioneros Rojos izendatu zuten eta, geroago, Juventud Roja-ko kide ere izan zen. 1934ko urriko iraultza eta 1936ko Gerra Zibileko urte latzak ere gertutik bizi izan zituen.

## Gaspar Alvarezzi grabatutako pasarteetako baten transkripzioa

“[Kalian ze denda zeguan, edo tabernarik bazeguan?] Tabernia? Sagardotegixa. Eibarkuak ziran orduan, ba hamentxe, zerian, hamen egongo zan “Buru”, bai, Arana apellidua (...) Hamen, Ifarkalen bestekaldian, Bidebarrietan eskuman. Orduan zuan beran onduan kooperatiba, kooperatiba sozialista, bai... Ta beste bat hamen, Txontan. Ta gero beste bat Barakaldon (...) Maltzagan be bai, oin almazena dago han, han be baeguan (...) Hantxe eguan etxe zahar bat, eguan lehen han, eta hantxe behian zekan sagardotegixa, zera, sidreria. Ostian ez naiz gogoratzen... oin kenduta dago dana (...).”



## Donostia inguruko sagardotegiak


Donostian soldadutzan zegoela ezagutu zituen sagardotegiak, bai Donostian bertan, baita Astigarragan ere. Sagardoa nola egiten zuten ikusi zuen.

Sagardoa dastatzen Gaztañegin, Manuela Joaquina Lekuonaren (1844-1923) baserrian (Oiartzun). GURE GIPUZKOA.



**Pedro Arrizabalaga Iriondo**  
(1906 – 2007)

Estazio kalean jaioa. Izen handiko eskopetagina. Artamendi eta Zulaika-rekin ikasi zuen marrazten. 14 urterekin hasi zen lanbidea ikasten, Albisteginean. Ugartetxearen tailerrean ere lan egin zuen baina denbora gutxira bere izena daraman eskopeta tailerra ipini zuen: Pedro Arrizabalaga. Gaztetan, dantza eta kantuan egitea asko gustatzen zitzaion, baita gitarra jotzea ere. Oraindik trikitia oso gustoko du. Gerra garaian familia osoak Axpe-Arrazolako baserri batera alde egin zuen, Eibartik ihes eginda. Ehiztari amorratua izandakoa.



## Pedro Arrizabalagari grabatutako pasarteetako baten transkripzioa

“[Zelakua zan orduan girua han, sardandegixetan-eta, Donostian?] Ona. Oin ez dao lehengo moduan han sardandeirik. Bat edo bi ta egongo dittuk, ezta? Baiña... Ta ostiango, sardandeixa ez dan lekuetan be, sardaua ekarrittakua ta... oin be bai han bastante... beheko suterraneuetako sozidadietan ta geuzetan. Baiña orduan sardandeixak euazen benetakuak, onak. [Onak ziran?] Bai, onak edo... Bai. Han guk behintzat [etxauan] aitzen, baiña... Sardandeixak ikusi najittuan nik gero handik fuera, benetakuak, Astigarragara juan ta. Astigarragakuak be baeuazen ba geure kintakuak, eta nik hango batzuk lagun ein najittuazen. Ta koño, holaxen diskutiru sardaua zelan eitten dan ta... “Etorri bihar dozu geure sardandeixa ikustera egun baten”. Ta holaxen pentsau genduan egun baten ta juan nitzuan ta “ra!” urten jestan (...) ta “hauxe da ez dakit zer, hau da dolaria, hau dala ez dakit zer... zen dan moduan zerian, molinuetan, ba, igual-igual ha be. Jo-ta txikitzen juen ta gero pasau koladoretan ta gauzetan ta... (...) Ikusgarri! Ikusgarri!”.

# + osasun gida

## Dentistak



**arat**  
Hortz Klinika

"Hortz osasuneko profesional taldea zure zerbitzura"

T. 943 20 18 51  
info@clinicadentalarat.com  
www.clinicadentalarat.com  
Toribio Etxebarria, 7. EIBAR

UniverSalud  
Mutua, kongainia eta kolektibo handiekin itundutako zentroa



**hortz-klinika**  
**B. IZAGIRRE**  
clínica dental

**EGUNERO**

Untzaga, 5 - 4. Tel. 943 70 23 85



**IRAZABAL**  
clínica dental

Irribarreetan adituak  
ESPEZIALITATE GUZTIAK

Julian Etxebarria, 12 - 1. Esk.  
Tfnos. 943 20 85 52  
www.clinicairazabal.com



Esku onetan egotearen ziurtasuna.

20.000€ gisa gutxietsu guk.  
Ezartze eta egite irribarre berri em.

**bista eder**  
clínica dental hortz klinika

Deitu | 943 70 00 62

bista eder, 19  
www.bistaeder.es

**MIGUEL SEMINARIO**  
**ZURIARRAIN ODONTOLOGOA**

Odontologia orokorra  
Ortodontzia  
Implanteak

**Bidebarrieta, 7 - 1. esk. 843-702886**



**EIBAR** HORTZ KLINIKA  
CLÍNICA DENTAL

MAITANE G. IÑIGUEZ

Zerbitzu guztiak klinika berberan

San Agustín, 4 beheko eskalera  
943 537 076 - 688 884 808  
info@eibarclinicadental.com  
www.eibarclinicadental.com

**Pedro Etxebarria Gisasola**  
**DENTISTA**

09.00etatik 13.00etara eta 15.00etatik 20.00etara  
**EGUNERO**

Caibetan 19 - 3. esk. Tfnos. 943 20 72 17



**GASTESI**  
Hortz-Klinika

Odontologia orokorra eta prebentziozkoa / PADI  
Ortodontzia / Implanteak / Laser teknologia

Erebal, 9 - 1. C. 943 70 00 90 / 688 68 96 02

## Dietetika/Nutrizioa



**NATUR HOUSE**

Ainara Iriando Ansoa  
GIZA ELIKADURAN ETA  
DIETETIKAN DIPLOMATUA

Toribio Etxebarria, 22  
Mugikorra: 677 551 850

## Errehabilitazioa



**CRF AMOSTEGI**  
**ERREHABILITAZIOA**

- Fisioterapia / Errekuperazio funtzionala
- Min-Urtetikoa
- Inkontinentsia urinarioak
- Kirol medikuntza
- Ama izateko prestakuntza

Muzategi 2 (EBAR) San Ignacio 2 (ELGOIBAR)  
Tfnos. 943 20 34 46 Tfnos. 943 74 33 74

## Estetika



**abontza**  
clínica estética

Dr. J. Ramón Fdez. Cudat

**MEDIKUNTZA ESTETIKOA**

**KIRURGIA ESTETIKOA**

Egiguren, 6 - I. solairua 943 906 044

## Fisioterapeutak



**ANE MENDIA**  
79 kalekoa Aia

- INDIKUTERAPIA
- KIROL LESIOAK
- Puzkion seka
- TRATAMENDUAK
- K-stretch + BIPOPOZIBOIAK

**FISIOTERAPIA ZENTRUA**

ARRAGUETA, 20  
Tfn. 943 53 06 42  
ane\_mendia@hotmail.com

## Ginekologia

Dra. Laura Martínez  Dr. Alejandro Recas

**GINECOLOGÍA EIBAR**

- Ginekologia
- Obstetrizia
- Ekografia 3D / 4D

Tel: 659 56 13 65 San Juan, 5 - 2. D  
dr.recas@gmail.com  
dra.martinezgallardo@gmail.com  
www.ginecologiaeibar.com



# osasun gida

## Logopedak

**AHOTS-LAN**  
LOGOPEDIA-PSIKOLOGIA

 **Isasi, 17 - 1. esk.**  
**943 202691**  
**ahotslan@gmail.com**

**Diagnostikoa eta tratamendua**

Degluzio atipikoa	TDAH
Disfonia	Berba arazoak
Ikaste-arazoak	TEA
	Dislexia

LEHENENGO KONTSULTA DOAN

## Podologoak

**ELENA AIZPUN**  
**PODOLOGOA**

  
838200124  
kolegiatu zentrala

**T. Etxebarria, 5 - 1. A**  
**943 12 14 93 / 696 555 208**

## Psikologoak

 **AMETS**  
PSIKOLOGIA KLINIKOA  
ETA OSASUN ZENTROA

BIDEBARRIETA, 27 - B, 1. solairua, 9. bulegoa  
[www.centroamets.com](http://www.centroamets.com)

Coro Ortiz de Urbina - Master Praktika Klinikoa  
PSIKOLOGICA 10/201987 (Kolegiatu) - Master P.N.L.  
Tel. 675 70 68 07 - Trainer

## Okulistak

 **Oftalmologoak**  
Centro de Oftalmología Avanzada

**JOSE ALBERDI**  
[www.oftalberdi.com](http://www.oftalberdi.com)

San Juan 11 - solairuartera  
943 20 19 82

 BIDEBARRIETA, 48  
**EIBAR**  
943 203050

ERDIKO KALE 54  
**ARRASATE**  
943 799746

**PODOLOGOA**  
Erdiko klinika

Nerea Arregi (122 Kolegiatu zbkia.)  
Rosarito Rodriguez (125 Kolegiatu zbkia.)  
Amagoia Zubizarreta (122 Kolegiatu zbkia.)

 **PSIKOTERAPIA ZENTRUA**

**HAUR, NERABE ETA HELDUENTZAKO PSIKOTERAPIA**

943 20 22 66  
Bidebarrieta, 27-B, 1º 3 atea  
[www.arratepsicoterapia.com](http://www.arratepsicoterapia.com)

Psikologia klinika eta  
Psikoterapia zentroa

 Oscar Mondragon Lili  
GOKIZ ETXARRIETAN  
Urkizu, 13 - beheak  
Tel. 943206823 eta 686859023

 **Recalde**  
Clínica Oftalmológica  
Oftalmologi Klinika


· **Miopia ebakuntzak**  
(femtosekundoko laserrarekin)

R.P.S. 204/13 

Plaza Barria 2. 2º. Tel.: 943 201 844  
[www.clinicarecalde.com](http://www.clinicarecalde.com)

**PODOLOGOA**

**Maidor Lopez Etxebarria**



Arragueta 2 Bis-B, Behea B  
Tfnua. 943 82 04 88

65 Kolegiatu zbkia.

## Psikoterapia

 **FUB**  
PSIQUIATRIA / PSICOTERAPIA / ALFA EIBAR

FERNANDO URIZ AR. BARANDIARAN

**Medikuntza Psikiatrikoa**

Ego Gain, 18 - 1 A (Eibar)  
615 71 54 04

Bailen, 9 - 1. ezk. (Bilbo)  
94 416 49 06  
furizar1@yahoo.com

 **PODOLOGO**  
T. ORTOPEDICO

**Iñaki Rivero Zabaleta**

Calbeton, 4 - 2.  
(Untzagako dorrea)

Tel. 943 20 86 41



Lorea Arakistain

LOREA ARAKISTAIN

## Tele-lana

Tele-lana, tele-eskola, tele-yoga, tele-poteoa... bat-batean, dena zen tele. Ez da horrenbeste denbora pasa.

SARS-CoV-2 koronabirusaren ondorioz ezarritako konfinamenduan Internet bidez aritu ginen ohiko bizimodu eta jarduerekin jarraitzeko ahaleginean. Internet jarri genuen gure eta egiten genituen gauzen bitartekari, tele-lana eta tele-eskola izan ziren adibiderik garbienak. Interneten aurkitu genuen bizimodua eta errutinak ahalik eta gutxien aztoratzeko bidea. Internet bidez jardun genuen, ikasten eta lanean ez ezik baita kirola egiten, kontzertuak ikusten, partxisean jolasten eta lagunekin poteatzen ere. Ondorioz eta halabeharrez, Interneten erabilerak gora egin zuen, asko.

## "Sei hilabete joan dira; birusa, ostera, ez. Olatu bat, bi olatu. Tele-lanean jarraitzen al duzue?"

DE-CIX Madrilgo truke-puntuaren arabera, igoera %50ekoa izan zen, eta, ondorioz, segundoko 500 Gbit gaingitu zituen. Frankfurtoko truke-puntuak, munduko trafiko-tasa handiena duenak, segundoko 9 terabit gaingitu zituen.

Interneten sektorean lan egiten dugunok inoiz baino lan gehiago izan genuen. Gauza berriak kontsumitzen hasi ginen gehienok; beste zenbait, sortzen hasi ziren. Eta asko eta asko Internet bidez, etxetik, lan egiten aritu ziren lehen aldiz. Langileen %4k egiten zuen lan etxetik pandemiaren aurretik eta %34k pandemiaren lehen olatuan.

Horretarako, hainbat erakundek baliabide eta prozesuak egokitu behar izan zituzten erlojupean. Tele-lana esperimentu erraldoia ere bazen nolabait, zeinen ondorioz kontziliazioa errazteko tele-lana behin betiko ezarri zitekeen. Pandemia bat izan zitekeen lana, bizitza eta zaintza uztartzeko behar genuen bultzada. Zailena eginda zegoen.

Sei hilabete joan dira; birusa, ostera, ez. Olatu bat, bi olatu. Tele-lanean jarraitzen al duzue?



David Karba

DAVID KARBA

## Kultura segurua da

Martxoaren 12a zen eta alarma guztiak pizten hasi ziren. Eguen hartan kultur agenda guztia nola erortzen zen ikusi genuen; bandek eta aretoek bertan behera utzi behar izan zituzten kontzertuak eta ikuskizunak. "Oso luze ez joatea espero dugu", esaten genuen. Asteburu hartan bertan 'Arima' taldearen kontzertua prestatzen ari ginen Ez Dok-en. Gogo handia genuen, hurrengo asteetarako agenda izugarria prest genuelako.

Hala ere, egoera horretan ikuskizun hura eta gero etorriko zirenak bertan behera laga behar izan genituen. Barixaku hartan, martxoaren 13an, tabernako ateak itxi genituen eta arima pixka bat erori zitzaigun.

Ordutik zazpi hilabete pasa dira eta egoerak okerrera egin du. Zazpi hilabete hauetan sektore asko gutxietsi egin dituzte. Zazpi hilabete hauek zalantza asko izan dira kulturaren sektorearentzat eta, egoera ikusita... berdintsu jarraituko dugu. Bihotzean min egiten dit lagunak eta sektoreko kideak lan egin gabe, laguntza barik eta etorkizun grisaren aurrean ikusteak. Aforo murriztuarekin arauak eta segurtasun-neurriak betetzen dituzten ikuskizunak bertan behera laga dituzte. Gainera, egunerokoan egiten ditugun gauzen %90a baino hiru aldiz seguruagoak dira. Lanera joan eta autobusean

edo metroan bidaiatzea baino seguruagoak dira, ziur. Gauzak horrela, erabat imajinaezina da zerumugara begira jarri eta lehen bezalako kontzertu bat irudikatzea. Baztertu egiten dut aukera hori. Eta, bitartean, Kultura Ministroak arreta gehiago jartzen dio Messiren etorkizunari bere lana egiteari baino.

Gasteiztik Eibarrera beteta doan autobusean idazten dihardut artikulu hau eta zalantza ditut autobus honek amildegira bultzatu dituzten beste sektore kaltetu batzuk hartu dituzten segurtasun-neurriak betetzen ote dituen.

**"Eta, bitartean, Kultura Ministroak arreta gehiago jartzen dio Messiren etorkizunari bere lana egiteari baino"**



## 12-18 urteko gazteentzat zientzia eta teknologiari buruzko **bideo-lehiaketa**

Zientzia eta teknologiako proiektu edo esperimendu baten inguruko bideo-lehiaketa jarri du abian Elhuyarrek 2020ko urrirako, Zientzia Azoka ekimenaren barruan. Euskal Herriko 12-18 urteko gazteek har dezakete parte, banaka zein taldeka (gehienez lau taldekide)

eta bideo onenak sarituko dira, Frantziako Futuroscope parkeko bidaiarekin. Lehiaketa parte hartzeko bost minutu baino gutxiago irauten duen bideo bat aurkeztu behar da, beti ere esperimendu edo proiektu zientifiko edo teknologiko bati buruzkoa. Proiektua amaituta

egon daiteke, edo egin gabe (zer egiteko asmoa dagoen, hasierako ideiak, nola egingo den, arazo edo erronkaren deskribapen teorikoa, etab.).

Gaia guztiz askea da: zientzia ikerketako proiektuak, proiektu teknologikoak, esperimenduak... Antolatzaileek

azaldu dutenez, "gazteek egin-dako proiektua azaldu beharko dute, zer egin duten eta zergatik kontatuta". Bideoak euskeraz, gaztelaniaz edo ingelesez eginikoak izan daitezke, eta originalak. Horretarako, partaideek (indibiduala nahiz taldea) elementu artistikoak, musika, irudiak edo egoki deritzoten bestelako edozein erabil dezakete. Bideo guztiak Elhuyar Zientzia Azokaren Youtube kanalean eta webgunean jarriko dira ikusgai; beraz, bideoan agertzen diren lagunen baimenak ere bidali beharko dira. Bestalde, publiko mota guztientzako erakargarria izatea sarituko da.

Epaimahaiak adin-tarte bakoitzeko (DBH 1-2, DBH 3-4 eta Batxilergoa) bideo onena sarituko du eta sari-banaketa 2020ko azaroan egingo da. Izena emateko epea urriaren 1etik 30era bitartean egongo da zabalik eta parte-hartzaileek bete beharreko formularioa eta baldintza guztiak Elhuyar Zientzia Azokaren webgunean (<https://zientzia-azoka.elhuyar.eus/eu/albisteak/bideo-lehiaketa>) daude eskuragarri.

## Udako argazki lehiaketa antolatu dute **Indianokua gaztelekuan**

Aurreko asteko barixakuan zabaldu zituen berriz ere atek Indianokua gaztelekuak eta, azken urteotan egin ohi duten bezala, oraingoan ere Udako Argazki Lehiaketarekin hasiko dute ikasturtea. Arduradunen berbetan, "oporrak ezberdinak izan diren arren, ziur gaude ar-

gazki sorta polita aterako zenu-tela! Aukeratu zuen gustokoena eta gaztelekuko Whatsappera (688 68 23 72) edo emailera (eibarkogaztelekua@gmail.com) bidali urriaren 4a baino lehen!".

Aurrerantzean, osasun-egoerak okerrera egiten ez badu behintzat, ohiko martxari ja-



rraituko diote Muzategi kalean dagoen gaztelekuan eta ordutegia ere betikoa izango da: martitzenetik egunera, 18:00etatik 20:00etara; barixakuetan, 16:30etik 21:00etara; zapatuetan, 17:00etatik 21:00etara; eta domeka eta jai-egunetan, 17:00etatik 20:30era. Betiko moduan, gaztelekuan egiten diren jardueren berri izateko eibarkogaztelekua.wordpress.com helbidera jo daiteke.



## JON GOROSABEL FORURIA

(2. urteurrena: 2018-IX-22)

*"Betirako gure bihotzetan maite izango zaitugu"*

ETXEKOAK





Elena Julianek eta Roberto Ruizek hainbat gailurretara igo dute Eibar KEren bandera.

<<< ELENA JULIAN ETA ROBERTO RUIZ • Mendizaleak >>>

## “Zoragarria izan zen ilargipean ibiltzea, bakardadea, isiltasuna... sentsazio politak dira”

Elena Julianek eta Roberto Ruizek mendiko botak jantzi eta urtero espedizio bat egiteko ohitura dute. Hainbat herrialdetako gailurrak zapaldu dituzte eta aurren, pandemia tarteko, Teide (3.718m) igo dute itsas mailatik hasita. 11 ordu behar izan zituzten eta, pentsatzen zutena baino gogorragoa izan arren, asko gozatu zuten eta erronka berrien bila dabilta. Koronabirusak Broad Peak igotzeko asmoak zapuztu dizkie momentuz, baina badituzte beste mendi batzuek begiz jota.

### Nola hasi zenuten urtero gailur handi bat egiteko ohitura hau?

ROBERTO: Niri txikitatik gustatu zait mendia eta natura, eta euskal mendietan ibilia nintzen, baita Pirinioetan ere. Elena beranduago hasi zen, baina gogor. Elenaren ahizpa bat Jacan bizi da aspalditik eta, ingurua sarritan bisitatzen genuenez, bertan etxea erostea erabaki genuen. Horrela, inguruko Pirinioetako gailurrak

igotzen hasi ginen eta, gure bi seme-alabak hazita zeudenean, beste mendikate batzuetan zerbait egitea pentsatu genuen. Beraz, Mont Blanc igo genuen. ELENA: Gero, gehiago egiteko gogoak geratu zitzaizgun eta beste erronka batzuk bilatu genituen: mendi handiagoak, edo erakargarriagoak beste arrazoi batzuegatik. Herrialde eta kultura ezberdinak ezagutzea gustatzen zaigu eta horrela

etorri ziren Elbrus (Errusiar-ko Kaukasoa), Hego Huascarán eta Pisco (Peruko Cordillera Blanca mendikatean), Kilimanjaro (Tanzania), Cervino Suitzako aldetik, Kang Yatse I (Indiako Himalayan), Chimborazo (Ekuadorren), Damavand (Iranen) eta, koronabirusa dela eta, uda arraro honetan Teidera joan gara, itsas mailatik gailurrera igotzeko (Otik 3.718 metrotar).

### Atzerrian egiten dituzuen espedizioetan nola moldatzen zarete logistika guztirako?

E: Zailtasunari dagokionez, mendiko profesionalak ez garenok gure mailarako egokiak diren mendiak igotzea aukeratzeko ditugu bertako gidari baten laguntzarekin. Horretarako, mendia dagoen herrialdeko enpresa espezializatu bat bilatzen dugu, logistika-kontuak eta bai-menak prestatzeko.



R: Egin beharreko igoeraren arabera, materialen zerrenda prestatzen dugu, material tekniko pertsonala, partekatzeak eta logistika materiala bereiziz. Material tekniko pertsonala hemendik eramaten dugu, tokian bertan oso zaila izaten delako material egokia aurkitzea; eta partekatzeak material tekniko bertako agenteak ematen digu. E: Logistikaz herrialdeko agente arduratzen da. Gidak ere tokiko enpresak ezartzen ditu. Batzuetan, trekkingetako eta igoeretakako alturara egokitzeko gida bat hartzen dugu eta beste bat, teknikoagoa, helburu den mendiari azken eraso egiteko.

R: Ibilbidea kudeatzeko, mapak, liburuak, interneteko informazioa eta abar biltzen dugu. Gaur egun GPSaren laguntzarekin ibilbideak etxeko ordenagailuan prestatzen ditugu eta, normalean, azken igoera bertako gida teknikoak ondo ezagutzen du.

### **Abentura bakoitzak bere xarma izango du, baina non gozatu duzue gehien?**

E: Bai, abentura bakoitzak bere xarma izaten du, denak desberdinak direlako. Baina bat nabarmentzekotan, Irangoa aukeratuko nuke, eta ez bereziki mendiagatik. Mendia erraza eta oso polita izan zen, ederra benetan, baina herrialdea ikusgarria iruditu zitzaigun eta bertako jendeak eman zigun harrera hunkigarria izan zen. Iraniarrek behin eta berriro eskertzen ziguten bisita. Sinpatia eta adeitasun handiz hartzen dituzte bidaiari atzerritarrek gaur egun nazioartean duten egoera zaila kontuan hartuta.

### **Eta non ez duzue gozatu hainbeste?**

R: Zaila da erantzuten. Espedizio guztiak asko gustatu zaizkigu, bakoitza bere erara. Zerbait aipatzekotan, estualdiren bat aipa dezakegu. Huascaranen jausi egin nintzen eta sokatik zintzilik nengoela izotzezko horma baten kontra jo nuen. Oinen azpiko elurra apurtu egin zen

## **“Proiektuetan aldagai asko dago, eta oso polita da dena gainditzeko gai izan zarela eta ahaleginak merezi izan duela ikustea”**



eta ni aurrean nindoan zeharbidestu batean. Zorionez, seguruek funtzionatu egin zuten eta, kolpeak jaso eta kaskoa hondatu arren, gauza ondo amaitu zen. Beste batean, Kan Yatse I-ean temperatura ez zen oso baxua eta, elurra bigunegi zegoenez, ezin izan genituen seguruak jarri. Gaua han goian nola pasatu pentsatzen hasi ginen, baina azkenean gure sherpak arazoa konpondu zuen eta rapelekin aurrera egin ahal izan genuen. Une larri hauek arrakastaz pasa ondoren, badakizu, lagunei kontatzeko pasadizo bihurtzen dira.

### **Aurten Teide igo duzue. 0 metrotatik 3.718 metrotara 11 ordutan! Nola bizi izan zenuten?**

E: Neke handiarekin! Meteorologia ondo aztertu arren, abuztuan Kanarietan ezinezkoa da berorik eta hezetasunik ez aurkitzea. Pentsatu baino gogorragoa izan zen. Hasieran nahiko arin ibili ginen, baina ordubete eta erdi pasatu ondoren, errealtatearekin tupust egin genuen aldapa zorrotz eta gogor batean. Hala ere, zoragarria izan zen zati batzuk ilargipean ibiltzea, bakardadea, isiltasuna, gure pausoen hotsa besterik ez... sentsazio politak dira.

### **Nola moldatu zineten zailtasunei aurre egiteko?**

R: Uharteetako jendeak dioenez, urteko sasoi horretan erronka gauzatzea ezinezkoa da, ibilbide guztian zehar, ur faltaz gainera, bero handia egiten duelako. Gainera, pertsona bakoitzak behar duen urak pisu handia hartzen du eta gorpuzari erregaia sartzen joateko janari nahikoa eraman behar da. Bestalde, beste mendi batzuetan 0,65° C-ko temperatura jaitsiera gertatzen da ehun metro gora egiten denean, eta horrek gauzak errazten ditu latitude subtropikaletan ere, baina ez Kanariar Uharteetan. Goi-geruzan behe-geruzan baino beroagoak diren haize alisioen ondorioz, Kanarietan ohikoa da inbertsio termikoa egitea eta, ondorioz, aire-geruza beroago batekin topo egiten duzu altitude erdi edo heren batek aurrera. Amaitzeko, Sahara eta Saheletik datozen lanbro ugariak, aire bero-beroa eta basamortuko harea nahastuz, igoera infernu bihurtu dezakete. E: Igoera gauez egitea erabaki genuen eta 22:30ean hasi ginen. Igotzeko bederatzi ordu inguru beharko genituela uste genuen, baina azkenean hamaika ordu behar izan genituen. Beroaren eta hezetasu-

naren eragina handia izan zen. Deshidratazioa, mineral eta energia galera izan genuen eta, bestetik, zenbat eta gorago oxigeno gutxiago zegoen. Pentsa, itsas mailan hasi ginen! Hidratazio eta janari geldialdiak sarritan egin behar izan genituen.

### **Zer sentitzen duzue horrelako erronka bat gainditzean?**

E: Lehenik adrenalinak eragindako demaseko urduritasuna eta, gero, asetze sentsazioa. Zaila da deskribatzea. Gainera natura-ingurunean egiten dugu guzti hori, gizakiaren sustraie-tatik gertu.

R: Normalean epe ertain-luzeko proiektuak izaten dira. Poz handia ematen du lortu duzula eta dena kudeatzeko gauza izan zarela ikustea. Edozein proiektutan gora-behera asko izaten dira eta oso polita da dena gainditzeko gai izan zarela ikustea, arriskuak barne, eta ahaleginak merezi izan duela. Entrenamendu ona da bizi-tzarako.

### **Prestakuntza berezia behar da horrelako erronkak gauzatzeko?**

BIEK: Ez asko, gurea ez delako goi-mailako kirola, baina zerbait egin behar duzu. Urtean zehar beti egiten dugu zerbait: gimnasioa, mendiko bizikletarekin ibili eta mendira joan. Udan igeriketa pixka bat ere. Gero, erronka egin baino bi-hiru hilabete lehenago, entrenamendu zehatzagoekin hasten gara eta mendiko entrenamenduak gogortu egiten ditugu: irteera luzeagoak, desnibel handiagoak, eta ahalik eta altuera handienera ibiltzen saiatzen gara Pirinioetan.

### **Eta orain, zein mendi zapaldu nahi duzue?**

R: Asko daude eta oso leku interresgarrietan. Mundu osoa zoragarria da! Batzuk aipatzekotan: Denali (Alaskan), Dolomitak (Italian), Hegoaldeko Alpeak (Zeelanda Berria), Patagonia, erdiko Andeak, Pamir, Siberia handia... Broad Peakera joateko asmoa ere badugu.

>>> Irailaren azken asteburuan (26 eta 27) Araneko Itzuliaren beste bi etapa egingo dituzte Pirinioetan. Prestatutako irteerak honakoak dira: lehen egunean Col de Portillon hasi eta Artiga de Lin-eraino joango dira, tartean 2.468 metroko Tuc dera Escaleta igotzeko; domekan, bestalde, Vielhako Hegoaldeko tuneletik Iparraldeko tunele-raino joango dira, 2.605 metroko Tuc del Port gainditzeko tartean. Ostatu Lesen hartuko dute, hotel batean, eta segurtasun neurri guztiak beteta. Bidaian ere COVID protokoloa aplikatuko da: maskara eta eskuak garbitzea derrigorrezkoa da eta mendian gehenez hamar laguneko taldeak egingo dira. Interesatuak izena eman dezakezue, betiko moduan, mar-

## Araneko Itzuliaren bi etapa dituzte zain Deporreko mendizaleek 26 eta 27rako



Aurreko asteburuko irteeran parte hartu zuten batzuk Trekua tontorrean.

titzen eta eguenetan (19:30-20:30) Deporreko bulegoetan edo, bestela, 943-201904 telefono zenbakira deituta.

Bestalde, aurreko asteburuko zapatuan hasi zuen Klub Deportiboko mendi taldeak ikasturte berriko jardura, Artzaintzaren zortzigarren etapa eginez, hurrengo hilabeteotan egingo diren ibilaldi horretako etapen aitzindari. 28 lagun elkartu ziren Lizarragatik Uharte Arakilerainoko ibilbidea egiteko. Egun eguzkitsua lagun izan zuten Urbasako paraje zoragarriaz gozatzeko. Urriari Artzaintza Naturbidearen 9. eta 10. etapak egingo dituzte (GR 282 ibilbideari jarraituz) eta azaroan 11.a, Aketegi mendira egingo duten irteera eta kobara bisitarekin batera.

## Urkiko foball taldeak entrenatzen hasi dira denboraldia prestatzeko

>>> Eusko Jaurlaritzak ezarritako neurri guztiei jarraituz hasi dituzte entrenamenduak Eibar KE-ko talde guztiek. Orduko osasun egoerak lagatzen badu behintzat, 2020-21 denboraldia urriaren 18an hasiko dute. Erregional Gorengo mailan jokatu-ko duen talde nagusia igoberria da maila horretara eta ahalegin

berezia egin beharko du maila berrira egokitzeko; hori pandemiaren eraginez behar zen moduan ospatu barik geratu ondoren. Erregionaleko taldeak eta jubenil eta kadete mailetako Ohorezkoek kanpoan jokatu-ko dute lehenengo jardunaldi hori: jubenilak Zumaian eta beste biak Aretxabaletan.



## Pilota Eskolako Batzordeak matrikulazio-epea zabaldu du

>>> Pilota Eskolak ikasturte berria hasi du eta bertan izena eman nahi duten guztiek aukera dute matrikula egiteko, epea zabaldu dutela aprobetxatuz. Interesatuak email bat bidali

dezakete [pilotaeskola@depo-reibar.com](mailto:pilotaeskola@depo-reibar.com) helbidera eta hortik informazio guztia bidaliko zaizkie, matrikula-orriarekin batera, azken hori bete dezaten. Pilota Eskola Eibarko Klub De-

portiboaren batzordeetako bat da eta azken aldiari neska-mutil kuadrila polita bildu du bere inguruan; entrenamendu-saioak eskaintzeaz gain, horrekin batera gurasoekin ere partekatzen

dituzten hainbat jardura eta irteerekin, batez ere modalitate desberdinak ikusteko eta horiekin gozatzeko. Jakina, pilotari federatuen arteko torneoa baztertu barik.



**Izadi**  
**LORADENDA**

San Juan, 1    Tel. 943 20 33 29

LORA ETA LANDARE  
NATURAL ETA  
LEHORRAK  
EZKONTZETARAKO  
LORAK  
ZENTROAK  
ERRAMUAK

*Enkarguak etxera*



**San Andres  
Gozotegia**

- **tartak**
- **enkarguak**
- **etxera**

**Bidebarrieta, 28**  
☎ 943 20 79 73



## Hierros Servando Eibarrek partidu guztiak irabazi ditu Euskal Kopan

>>> Euskadiko Kopan bide ezin zuzenagoa hartu dute Fernando Fernandezek mutilek eta, Tolosari gol batengatik irabazi eta gero, Urduliz gaingitu zuten Ipuruan 29-21, oso partidu serioan, eta jarraian Urban Cabero Barakaldo ere erraz menperatu zuten, bizkaitarrei 21-32 irabazita euren kantxan.

Orain, B multzoko lehen postuan amaitu eta gero, Zarautz talde handia izango dute aurkari Euskadiko Kopako finalerdietan. Zaila izango da hor aurrera egitea. Ereintza Aquaplast A multzoko irabazleak, bestalde, Trapagaran izango du aurrez-aurre finalaren atariko beste partiduan.



## Gisasolatarrak nagusi berriro Diana elkarteko txapelketan

>>> Aurreko zapatuan Zambranan jokatuak Dianako ehiztarien arteko txapelketan, Iñigo Gisasola nagusitu zen seniorretan eta Jose Luis bere aita beterranoetan. Lehiaketa domekan Zambranan bertan jokatu den Debabarreneko txapelketarako baliagarria zen, eta hor Eibar, Elgoibar eta

Mendaroko hiru lehen sailkatuek hartuko dute parte. Iñigo Gisasolak hamar eper eta galeper bat ehizatu zituen, eta seniorretan Aimar Gonzalez eta Enrike Isasi izan zituen atzetik, sei eperrekin bakoitza. Jose Luis Gisasola, bestalde, hiru eper botata nagusitu zen beterranoetan.

## Bizikleta Eguna ere bertan behera

>>> Eibarko Txirrindulari Elkartek urtero antolatzen duen Bizikleta Eguna ere 2021era, datorren urtera, atzeratzeko erabakia hartu du pandemiaren eraginez, "ez dagoelako egun

horretarako antolatutako ekitaldiak egitea ahalbidetzen duten osasun baldintzarik". Gazteen artean zaletasuna pizteko egun berezi hori urriaren 4an egiteko asmoa zuten.





**elite**  
EQUIPAMIENTO DE OFICINAS

*eskolara buelta!*

Eskola-materiala, papertegia, motxilak, idazmahaiak, aulkiak...

**BEHAR DUZUN GUZTIA / MARKA ONENAK KALITATE ETA ZERBITZU BIKAINENA**

Isasi, 29 943-200030 elite@eliteoficinas.es www.eliteoficinas.es

**LANGILEAK BEHAR DITUZTE**

**dentistak / higienistak / laguntzaileak / ...**

Deitu: 943-700082

**EIBARKO HORTZ-KLINIKA BATEAN**



>>> Azkenean ipini diote hasiera data emakumezkoen goi mailako foball txapelketari: urriko lehen asteburuan hasiko dute liga. Eta eguazten arratsaldean egindako zozketan Eibarri Unben debutatzea egokitu zitzaion, Betisen aurka. Hurrengo jardunaldian, urriaren 11koan, Levante bisitatu beharko dute eibartarrek, gero Eibarren Madrid taldea jasotzeko eta Espanyoli bisita egiteko. Hurrengo jardunaldiak zailak izango dira benetan, jarraian Atletico de Madrid, Real Madrid eta Bartzelona pasatuko direlako Eibartik. Realaren eta Athletic-en aurkako derbiak lehen itzuliaren eta denboraldiaren amaieran jokatuko dira; euren arteko lehenengoa, Realaren aurkako Unben, urtarrilaren 24an. Jaitsierari ihes egitea ez da merke egongo, lau taldek baldinok baitute maila.

## Eibar FT-k Sevillako Betisen aurka egingo du debuta 1. Mailako Iberdrola Ligan



Emakumezkoen talde nagusiak aurreko astean estrenatu zuen anexoa.

Orain dela hilabete batzuk lortutako helburuari jarraipena emateko, eibartarrek taldea indartu dute. Hori bai, neurrian,

azken denboraldian arrakasta lortu zuen taldeko beste askok ondo merezitako saria izango baitute maila gorenean jo-

katuz. Brasilgo selekzioan jokatzen duen Juliana Cardozo "Jujuba" atzelariaren fitxaketarekin batera, Hegoafrikako selekzioarekin jokatzen duen Thembi Kgatlanga aurrelaria ere etorri da taldeari laguntzera. Eta Bartzelonaren bigarren ekipotik dator baita Arola Aparicio aurrelaria ere, aurretik Katalunia ingurutik etorritako Maria Llompard, Queralt Gomez, Noelia Garcia eta Aida Esteve laukotearekin batera. Iker Dorronsorok zuzentzen duen taldeak, bestalde, Eibarko bi jokalaririk izango ditu denboraldi berrian: Nerea Gantxegi kapitaina eta Marta Lopez de Gereñu 17 urteko gaztea.

Gehienetan Unben jokatzen duen taldeak beste hamazazpi taldeekin neurtuko ditu indarrak, azken denboraldian inork ez duelako mailarik galdu Iberdrola Ligan.

## Urbat Urkotronik II. Maila Nazionalera igotzeko partidu bakarrera dago

>>> Davide Cerchik entrenatzen duen Urbat Urkotronik waterpolo klubeko talde nagusiak entrenamenduei ekin die hilabete hasieratik, aurre-denboralditik euren burua prestatzeko dituzten helburuak lortzeko asmoarekin. Lehenengo erronka urriaren bertan izango dute, Madrilgo Majadahondaren aurkako partiduan: seguruena Madril jokatuko den partiduko irabazleak II. Mailan jokatzeko txartela lortuko du.

Azken denboraldian bi Koppen eta bi Ligen jabe egin zen Eibarko taldeak oraingoan hainbat zailtasunei egin beharko dio aurre. Izan ere, Eneko Treviño Bartzelonara joan da, ikasketak direla-eta, eta han I. Mailan jokatuko du. Aurrekoa gutxi balitz, maila nazionalera igotzea lortuz gero, eibartarrek ezin izango dute Orbeako igarilekuan jokatu, bertako instalazioek ez dutelako betetzen eskatzen diren gutxieneko bal-



dintzak; horrez gain, diru-araioak saihesteko babesle berrien beharra ere izango luke taldeak.

Guzti horri aurre egiteko indarrarekin hasi du aurre-denboraldia gure herriko waterpolo klubak eta "eskola-kirola de-

bekatuta badago ere, klubaren jarduerak guztiei ekiteko asmoa dugu". Azken urteotan waterpoloak gure herrian izan duen bilakaerak ondo erakusten du ondo egindako lanak bere emaitza eta fruituak ematen dituela.



### Maite Narbaiza Azkue

3. Urteurrena: 2017-09-18

**"Gogoan nahi zaitugu"**





## Errefuxiatuei laguntzeko itsulapikoak

Berez gogorra den egoera are gehiago okertu da Lesbosen (Grezia) dauden errefuxiatuentzat. Orain dela astebete Moriako esparrua kiskali egin zen eta bertan bizi diren 12.000 errefuxiatu inguru babesgabe daude orain. Egoera horren aurrean errefuxiatuentzat janariak prestatzen dituen Zaporeak elkarteak kezka adierazi du eta martxan jarri du errefuxiatuentzat laguntza lortzeko ekimena.

**H**ainbat egunez sukaldia itxita eduki eta gero, Zaporeak elkartekoak koinatzen hasi dira berriz. Herenegun, adibidez, 3.000 otordu koinatu zituzten. Ohikoa baino gehiago, egoera ez delako ohikoa.

Efren Flores hainbatetan egon da han koinatzen eta kezka handiz bizi du egoera. "Arazo handiak daude, baina gure lehentasuna ura erostea da. Otordu bakoitzeko litro bat ur ematen dugu eta diru asko behar da ura lortzeko", dioenez.

Egun gutxitan esparru berria eraiki dute Lesbosen eta 800

errefuxiatu sartu dira bertara, baina mehatxupean. "Bestela, ez diete asilorik emango", dio Floresek suminduta, "beste guztiak, ordea, kale gorrian daude".

Muturreko egoera honetara iritsi aurretik, Eibarren hainbat ekintza egin dira errefuxiatuei laguntzeko. "Badakigu hemen behar handiak dituen jendea dagoela, baina han bizi dena etsigarria da", esan digu Mireia Alonsok.

Oraingoan, Zaporeak-ek ezer esan barik, norbanakoek eman nahi izan dute laguntza. "Datorren astean astelehentik domekara Guridi tabernan

itsulapikoa jarriko dute Zaporeakentzat dirua batzeko eta, gero, biltzen den diru-kopurua bikoiztuko dute Guridikoek", esan digu. Guridiren proposamenarekin bat eginez, Vicuñañak ere kopuru bera jarriko du.

### Laguntzeko prest

Azken bi urteotan (15 hilabeteetan zehar, pandemia iritsi arte), hilabete bakoitzeko hirugarren asteko eguaztenean bildutako diru-kopurua herriko GKE bati eman dio Guridik. Orain, Lesbosen egoera ikusita, itsulapikoaren ideia bururatu zaie. "Ez da apar-

teko ezer", Alfredo Coboren ustez. Errugbiarekin lotura estua izanik, "argi dugu etekinak herriko errugbiari eskaini behar dizkiogula, baina baita gizarteari ere". Bestetik, norbaitek bere tabernan edo negozioan itsulapikoa jarri nahi badu, 679950907 telefonora deitzeko aukera dagoela esan digu Mireia Alonsok.

Zaporeaken kontuan dirua sartu nahi izanez gero, bi kontu hauek daude eskura: ES32 2095 5011 80 9115250322 (Kutxabank) eta ES71 3035 0103 88 1030035880 (Laboral Kutxa). ■

## JOSE IGNACIO ALBENIZ RUILOPE

(2020ko irailaren 16an hil zen, 86 urterekin)

**"URAK DAKARRENA URAK DAROA,  
ZUK EMANDAKOA GUREKIN GERATZEN DA"**

*Amas Etxaniz familiaren partez*



&lt;&lt;&lt; SARA BILBATUA • casting zuzendaria &gt;&gt;&gt;

# “Asko hunkitzen nau saria Zinemaldian jasotzeak”

68. Donostiako Zinemaldian Sara Bilbatua (Eibar, 1958) casting-zuzendariak jasoko du Zinemira saria. Donostia Zinemaldiak eta EPE eta IBAIA ekoizle-elkartek ematen duten ohorezko saria da, eta euskal zinemagintzaren alorreko pertsona ospetsu baten ibilbidea aitortzen du. Azken 25 urteotan Bilbatua ikus-entzunezko 75 ekoizpenetan baino gehiagotan izan da casting-arduraduna. Victoria Eugenia antzokiak hilaren 22an hartuko duen Euskal Zinemaren Galan jasoko du oroigarria.

## Lehenik eta behin, zorionak datorren astean jasoko duzun sariagatik. Zelan sentitzen zara?

Hunkituta nago. Saria benetan zoragarria da, eta harro nago Donostiako Zinemaldian jasoko dudalako. Urduri nago, ezin dut ukatu. Beti nago kameraren atzean, besteei begira, eta, orain, ni izango naiz fokua. Momentua ailegatzen denean animatu egingo naizela uste dut, baina orain emozio handia sentitzen dut.



Ibilbide luzea egin ondoren casting arduradun ezagunenetako bat bihurtu da Sara Bilbatua.



## OIER AREITIO BLASCO

1. urteurrena: 2019-09-23

“BETI IZANGO ZARA GURE BIHOTZETAN”

ZURE FAMELIXA



## Madriren bizi zara aspaldi. Eibarrera etortzeko ohitura daukazu?

Eibarrera familia bisitatzerako joaten naiz. Baisi tabernara asko joaten naiz, Iñigo nire anaia eta Kristinarekin egitera. Eibarko oroitzapen asko ditut. Nire lanaren oinarriak han sortu ziren. Aldatzen eta Institutuan ikasi nuen. Eibartik Donostiara joan nintzen psikologia-ikasketak egitera eta han gelditu nintzen bizitzen. Antzerkiarekin zerikusia zeukaten gauzak egiten hasi nintzen sasoi hartan eta film laburretan ere sartuta ibili nintzen. Zinemaldira asko joaten nintzen Eibarko beste lagun batekin. Orduak eta orduak ematen genituen pelikulak ikusten. Donostiarekin lotura handia dut. Askotan joaten naiz.

## Eta Donostiatik Madrilera...

Arte Dramatikoko ikasketak egin nituen Madrilgo William Layton antzerki laborategian. Ikasketak amaitzerakoan Madrilgo aktoreekin, komikoekin gehienbat, hasi nintzen lanean; gaueko lokaletan formato txiki-ko ikuskizunak mugitzen hasi ginen. Sasoi hartan antzerkia zen gertuen neukana. Aktore asko ezagutu nituen. Pixkanaka zinemagintzara hurbiltzen hasi nintzen, lan desberdinak eginez. 1994an egin nuen lehen lana casting-zuzendari gisa, Santiago Aguilarrek eta Luis Guridik osaturiko tandemak zuzendu zuen "Justino, un asesino de la tercera edad" filmean.

## Espainiako zinemagile ospetsuenekin egin duzu lan: Pedro Almodóvar (Todo sobre mi ma-

## "Gaztetan orduak eta orduak ematen nituen Zinemaldian filmak ikusten"

dre eta Hable con ella). Isabel Coixet (A los que aman), David Trueba (La buena vida), Guillermo del Toro (El espinazo del diablo) edo Julio Medem (Los amantes del círculo polar, Lucía y el sexo eta Caótica Ana), besteak beste. Nola egiten da lan maila horretako jendearekin?

25 urte daramatzat mundu honetan eta oso ohituta nago. Askotan zinema oso idealizatuta dago. Alfonbra gorria eta hori guztia oso ondo dago, eta beharrezkoa da, baina azkenean pertsona kreatiboak, langileak eta oso ausartak dira.

## Tanami Casting izeneko zure agentziaren bitartez telebista proiektu ugarietan ere parte hartu duzu...

Bai, esate baterako, La línea invisible, Velvet Colección, Tiempos de guerra, Refugiados, Gran Reserva, Gran Hotel, Amar es para siempre, Maitena, Estados alterados, La señora eta Hermanos & detectives. Gainera, 2004an El aire que respiro idatzi eta zuzendu nuen, Eusko Jaurlaritzaren Kimuak katalogoan sartu zen film labur bat.

## "Pertsonaien ezaugarrietara gehiago hurbiltzen diren aktoreak bilatzen ditugu"

## Egin duzun ibilbide luze horretan ba al dago nabarmen-tzea gustatuko litzazukeen pertsonaren bat?

Denak dira garrantzitsuak eta beharrezkoak. Beti aipatzen dut nire lehen filma, "Justino, un asesino de la tercera edad". Sari mordera jaso zituen. Barakaldon bizi den Saturnino Garcia zen protagonista.

## Zein da casting-zuzendariaren zeregina?

Zuzendariak filmean parte hartuko duten aktoreak lortzen laguntzen diegu. Horretarako gidoiaren azterlana egin behar da. Zuzendariarekin asko hitz egiten dugu eta, hortik abiatuta, pertsonaiaren profilerak hurbiltzen diren aukerak sortzen goaz. Pertsonaien ezaugarrietara gehiago hurbiltzen diren aktoreak bilatu behar ditugu.

## Nola egiten da aukeraketa hori?

Modu asko daude, eta proiektuaren arabera da. Batzuetan proiektuak aukeratzeko dituzten protagonistak, eta beste guztiak bilatu behar dira. Askotan antzezle desberdinak probatzen dira, "audizioak" egiten dira

pertsonaiekin zerikusi gehien dutenak aurkitzeko asmoz. Aurrekontua xumea bada, lehen lerroan ez dauden aktoreek jautzia emateko aukera izan dezakete. Aktoreei jarraipena egiten diegu. Antzerkietan, interpretazio-eskoletan, agentzietan... Laburmetraietan egiten denari ere begiratzen diogu. Leku guztietan bilatzen ditugu.

## Psikologiak laguntzen du castingak zuzentzen?

Psikologiak denerako balio du. Lengoaia psikologikoak zerikusi handia dauka interpretazioaren lengoaiarekin, sentimenduen eta emozioen munduarekin, hain zuzen.

## CIMA emakume zinegileen elkarteak kidea zara. Zer da bilatzen duzuen?

CIMAn emakumeek egiten dugun lanari ikusgarritasun handiagoa eman nahi diogu. Gauza asko egiten dihardugu, esate baterako, emakumeek idatzitako gidoiak garatzeko laguntzak lortzen ari gara.

## Zer esango zenieke interpretazioaren munduan hastera doazenei?

Ibilbide artistiko eta kreatiboa dela. Beraz, fondoko lasterketa da. Normalean, fruituak lortzeko, ahalegin handia egin behar da. Gero, jakina da artearen munduan ia ezinezkoa dela soldata finko bat edukitzea. Kreatibitatearekin zerikusia daukaten lanak oso zailak eta ausartak dira. Askok gustatu behar zaizu zure energia guztiak hor jartzeko eta karrera artistikoak dakarren guztia bizitzeko.

# ALBERTO SOLOLUZE TXURRUKA



"Lagun on bat aurkitzea oso zaila da, galtzea hainbat zailagoa, eta ahaztea ezinezkoa"

EIBARKO KUADRILLA









## Arrate Kultur Elkarteko bazkideen lanekin erakusketa prestatu dute Topalekuan

Kurtsoari hasiera ederra emateko asmoz, Arrate Kultur Elkarteko bazkideen lanekin osatutako erakusketa antolatu dute. Oraingo honetan hamabi artistaren orotariko lanak (pintura, eskultura, argazkiak...) bildu dituzte erakusketa osatzeko. Parte hartzera animatu direnak Arrate Osoro, Carmen Mostaza, Jose Luis Irigoien, Esther Fer-

nandez de Maruri, Eli Eguren, Vicente Iriondo, Espe Zabala, Esteban Oroz, Bakarne Elejalde, Fernando Retolaza, Mamen Piriz eta Jesus Belaustegi dira. Gaur arratsaldean, 19:30ean izango da irekiera ekitaldia, Topalekuan, artistak bertan direla. Egunero egongo da ikustera joateko moduan, 19:00etatik 21:00etara bitartean.



## “Mindfulness. Arreta kontzientea” liburua aurkeztuko du egileak Armeria Eskolan

Irailaren 24an (egunean) “Mindfulness. Arreta kontzientea. Jakinduria lortzeko zuzeneko bidea” aurkeztuko du egileak, 18:00etan, Armeria Eskolan (sarrera doan, edukiera bete arte). Fernando Rodriguez Bornaetxea Psikologian doktorea da eta, horrez gain, Vispassana maisua eta Donos-

tian dagoen Baraka Psikologia Integral Institututuko zuzendaria ere bada. Bere ustez izaki kontzientegoak, solidarioagoak eta errukiorragoak bihurtzen gaituen gaitasunari buruz arituko da berbetan datorren aste saioan. Gaztelaraz ez ezik, gai horri buruz euskeraz idaztera ere animatu da.



## Eibarko Musika Banda domekan itzuliko da Coliseo antzokira

COVID-19aren ondorioz otsailaz geroztik emanaldirik eskaini ez duen Eibarko Musika Bandak berriz ere jotzeko aukera izango du asteburu honetan. Musikariak orain dela aste pare bat hasi ziren berriz ere elkarrekin entseiatzen eta pandemia hasi zenetik bere lehen kontzertua izango dena domekan egingo dute, 12:30ean Coliseo antzokian. Carlos Sanchez-Barbak zuzenduko duen emanaldian honako pieza hauek joko dituzte: “Europa Mars” (Robert Allmend), “El tambor de granaderos” (Ruperto Chapi), “Oregon” (Jacob de Haan), “Montenido” (Jay Chattaway) eta “Sedona” (Steven Reineke).

## Bertso musikatuak gaur gauean

Hankamotxak bertso eskolakoek, Udalarekin batera, bertso saio musikatu antolatu dute gaurko, 22:00etan Txaltxa Zelaian (euria egingo balu, Portalean). Beñat Gaztelumendi, Nerea Ibarzabal, Miren Artetxe eta Jokin Bergara bertsolariek, Gari Otamendi eta Araitx Bizkai musikariek eta Maialen Bergara gai-jartzaileak hartuko dute parte saioan eta, sarrerek doan izan arren, COVID-19tik babesteko edukiera mugatua izango denez, bertso saiora joateko ezinbestekoa izango da sarrerek aurretik eskuratzea, Kutxabanken sarrera-salmentarako web orrian edo Coliseo antzokiko leihatilan (17:30etik 19:30era).



## Ikastaroetarako izen-ematea ixtear

UEUk udazkenerako prestatu duen eskaintzarako izen-ematea zabalik dago, baina irailean hasiko diren ikastaroetarako epea ixtear dago eta izena lehenbailehen ematea komeni da. Bestalde, urrian eta azaroan emango dituzten gainontzeko ikastaroak kontsultatzeko, UEU365 blogean begiratu dezakezue, 2020 UEUdazkena atalean.



San Romaneko larrosak. UXUE IGARZA.

			7		2	4
	1	2	6	3		5
		4				
3			4		1	
		6	1	5	4	
		1		8		5
					2	
	2		7	9	3	6
1	9		8			

	7			4				6
	4		6	7		3	8	
						4	1	
			8	6				
6			3		4			2
				2	5			
	2	3						
	1	5		8	9			7
8				1				2

soluzioa


A	P	S	R	R	C	L	E	L
R	E	C	R	I	A	Y	C	P
T	E	Z	E	C	E	Z	O	
C	L	A	R	C	I	P	Z	
C	C	Y	S	E	I	P	A	R
R	E	L	A	Z	P	A	O	C
L	L	Z	S	O	P	O	S	
C	S	O	L	E	C	I	O	
C	S	O	L	E	R	E	C	O

# SUDOKUAK


soluzioa

6	2	3	C	L	1	4	2	9
C	L	9	8	6	5	9	1	7
1	9	7	5	3	7	6	2	8
6	9	4	5	1	7	3	4	2
2	5	7	8	6	3	1	9	4
7	1	2	9	8	4	5	6	3
4	1	7	2	9	8	6	3	5
3	5	6	1	4	2	9	7	8
8	2	9	1	7	5	3	6	4

# LABIRINTOA



# PUNTUAK LOTZEN



## Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 20 15 25
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekoa	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 70 08 28
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon/Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

## Farmaziak

### BARIXAKUA 18

EGUNEZ | Morgado (San Agustin, 3)

### ZAPATUA 19

EGUNEZ | Castaño (J. Etxeberria, 7)

### DOMEKA 20

EGUNEZ | Azkue (T. Etxebarria, 4)

### ASTELEHENA 21

EGUNEZ | Barandela (Z. Agirre, 4)

### MARTITZENA 22

EGUNEZ | Lekunberri (Isasi, 31)

### EGUAZTENA 23

EGUNEZ | Lafuente (Sostoatarren, 10)

### EGUENA 24

EGUNEZ | Elortza (J. Gisasola, 18)

### BARIXAKUA 25

EGUNEZ | Iraundegi (Calbeton, 19)

GAUEZ BETI, 2020an,

Barandela (Ziriako Agirre, 4)

## Eguraldia (euskalmet.net)



## Hildakoak

- **Arrate Irazabal Oiarzabal.** 72 urte. 2020-9-10.
- **Pako Markiegi Bolunburu.** 84 urte. 2020-9-10.
- **Javi Aparicio Riveras.** 66 urte. 2020-9-10.
- **Itsuki Murakami.** 51 urte. 2020-9-10.
- **Javier San Vicente Ruiz de Arriaga.** 74 urte. 2020-9-11.
- **Raul Manuel Sobrino Bartolome.** 69 urte. 2020-9-11.
- **Araceli Delgado Gomez.** 92 urte. 2020-9-11.
- **Cristina Oyangueren Ajuria.** 91 urte. 2020-9-11.
- **Jose Torres Serrano.** 84 urte. 2020-9-12.
- **Joaquina Lezamiz Perez.** 92 urte. 2020-9-12.
- **Pedro Gastesi Escudero.** 93 urte. 2020-9-13
- **Jose Ignacio Albeniz Ruilope.** 86 urte. 2020-9-16.

## Jaiotakoak

- **Ibrahim Belbachir Lamas.** 2020-8-19.
- **Liman Mohamed Lamin.** 2020-8-31.
- **Pablo Zubillaga Etxeberria.** 2020-9-9.
- **Joel Bojorge Castaño.** 2020-9-10.
- **Kenan Srsi.** 2020-9-11.



ek!

**ESKELAK,  
URTEURRENAK  
ESKERTZAK...  
jartzeko:**

**688 62 76 89**  
publizitatea@etakitto.eus

ek!

**ETXEKOEN  
ZORION-  
AGURRAK  
bidaltzeko:**

publizitatea@etakitto.eus



**JOSE BILBAO  
BILBAO**

1. urteurrena: 2019-09-16

*"Denbora aurrera badoa ere,  
gure gogoan jarraitzen duzu"*

ETXEKOAK



688 62 76 89

publizitatea@etakitto.eus



### Zorion-agurrak ez ditugu bulegoan aurrez-aurrez hartuko

Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20 ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon behar da ...eta kitto!-n. Zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukazu.



Zorionak, **KEPA** lbargutxi, zure 3. urtian. Amama Edurne eta aittitta Josuren partez.



Zorionak, **UNAX**, gure txapeldunari, bixar 13 urte beteko dozuz-eta. Oso ondo pasatu zure eguna. Laztan haundi bat!



Zorionak, **IRENE!** Domekan 2 urte beteko dozuz-eta. Musu haundi bat etxekuen partez. Asko maite zaitugu!



Zorionak, **BEÑAT** Arrillaga, bixar, zapatua, 10 urte egingo dozuz-eta. Besarkada haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, **IKER!** Hurrengo astian mende laurdena, mekauen dio... Ondo pasa Lanzaroten eta gaurko Radler-ak zure kontu, krak!!  
PD: Joserra idolo.



Zorionak, aitxitxa **JULIAN**, zure 92 urtebetetzian! Patxo asko famelixaren partez.



Zorionak, **AMETS!!!** Domekan 10 urte beteko dozuz-eta. Espero dogu oso ondo ospatzia. Patxo potolua famelixaren partez.



Zorionak, **LUKEN**, astelehenian 9 urte beteko dozuzelako. Segi beti bezain jator! Musu haundi bat Eibarko amama eta aitxixaren, izeko-osaben eta Ander eta Jon lehengusuen partez.



Zorionak, **URKO** (8 urte maiatzian) eta **OIER** (6 urte hillaren 14an). Aitatxo eta amatxoren partez. Jarraitu holakotxe jator!!



Zorionak, **HELENE** (abuztuan 6 urte bete zenuz) eta **AMETS** (10 egingo dozuz domekan). Musu potolo bat etxekuen partez!



Zorionak, **IRATI**, gure etxeko txikitxuari. Famelixaguztiaren eta, batez be, URKOREN partez.



Zorionak, **ANABEL** (iraillaren 9xan izan zan zure eguna) eta **MIRARI** (astelehenian 2 urte beteko dozuz). Musu haundi bana famelixa guztiaren partez. Asko maite zaituegu.

## ZINEA COLISEO

### 1 ARETOA

- **19an:** 22:00
- **20an:** 20:00
- **21ean:** 20:30

“La boda de Rosa”

Zuzendaria: Iciar Bollain




### 2 ARETOA

- **20an:** 20:00
- **21ean:** 20:30

“Los nuevos mutantes”

Zuzendaria: Josh Bone



### 2 ARETOA

- **19an:** 17:00
  - **20an:** 16:00 (antzokia)
- “Padre no hay más que uno 2”

Zuzendaria: Santiago Segura



### ANTZOKIA

- **19an:** 22:00 (2 aretoa)
- **20an:** 16:00 (2 aretoa), 19:00
- **21ean:** 20:30

“Tenet”

Zuzendaria: Christopher Nolan



# Iragarki laburrak


**688 62 76 89**

publizitatea@etakitto.eus

**Iragarki laburrak ez ditugu bulegoan aurrez-aurre hartuko**

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak etakitto.eus webgunean ere argitaratuko dira.

## 1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

## 2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

## 3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

## 4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

## 5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskerak
- 5.2. Eskaintzak

## 6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

## 1. ETXEBIZITZA

### 1.1. Salgai

- Pisu berria salgai Urkizun. 2 logela, egongela, sukaldea eta 2 bainugela. Guztiz jantzia, bizitzera sartzeko prest. Ikusteko arazorik ez. Tel. 666927559.

## 3. LOKALAK

### 3.1. Salgai

- Garaje itxia salgai Polonia Etxeberria kalean. Tel. 610-835256.

## 4. LANA

### 4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (jendea euren etxeetan artatzeko tituluekin) eta garbiketarako egiteko. Urtetako esperientzia. Tel. 617610706. Isabel.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeak garbitzeko. Externa eta orduka. Tel. 642505360.
- Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 610067042.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Tel. 688735551.
- Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. Goizeko 10:00etatik arratsaldeko 15:00ak arte. Tel. 663530302.
- Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. Goizeko 10:00etatik arratsaldeko 15:00ak arte. Tel. 635802382.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 632642320.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 631836738.
- Neska eibartarra (LHko graduatua, ingelesez) eskaintzen da umeak goizez zaintzeko (eskolara eraman, etxean lagundu...). Esperientziarekin. 625539584.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 604120104.
- Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 642505360.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 658398474.
- Emakume eibartarra eta euskalduna eskaintzen da menpekotasun egoeran daudenei edozein lanetan laguntzeko. Urte askotako esperientzia. Tituluduna. Tel. 667376212.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 602-842219.
- Emakumea eskaintzen da umeak zain-

tzeko eta beste edozein motako lanak egiteko. Tel. 602-626166.

- Eibarko neska eskaintzen da umeak zaintzeko. Tel. 610-395225.
- Emakumea eskaintzen da etxeak garbitzeko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 657-155078.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 612-206409.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 697-292668.
- Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta tabernan lan egiteko. Goizez, gauzez eta asteburuetan. Tel. 633-556486. Victor.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, sukaldean laguntzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 602-047812.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 631-014952.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (Jaurilaritzako titulua) eta etxeak eta bulegoak garbitzeko. 8 urteko esperientzia. Tel. 603-514085.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeak garbitzeko. Erizain-laguntzaile tituluekin. Goizez, eta arratsalde 16:00ak arte. Tel. 643-410742.
- Neska euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko. Esperientziarekin. Egun osoko disponibilitatea. Tel. 650-257850.

### 4.2. Langile bila

- Laguntzaileak, higienistak eta dentistak behar dira Eibarko hortz-klinika batean. Tel. 943700082.
- Langilea behar da Eibarko hortz-klinika batean hortz-higienista bezala jarduteko. Berehala hasteko. Bidali kurrikuluma: hortzklina.06@gmail.com
- Langilea behar da Eibarko harategi batean. Bidali curriculum: eibarharategia@gmail.com

## 5. IRAKASKUNTZA;

### 5.2. Eskaintzak

- DBH eta Batxilergo klase partikularrik ematen dira, edozein arlotan. 3 laguneko taldeetan edo banaka, baita online ere. Tel. 615708043.
- Ingeles filologo elebidunak (11 urte Erresuma Batuan) ingelesezko kla-

seak ematen ditu. Ume eta helduentzako maila guztiak, kasu bakoitzera egokitutako ikas-erremintekin. Tel. 617265575. Avelina.

- Euskarazko klaseak ematen dira. Perfiletarako prestakuntza (IVAP, HABE...) eta umeentzako eskolako errefortzua. Tel. 620608065.
- Klase partikularrik ematen dira: LH, DBH eta Batxilergo. Edozein materia. Presentzialak eta on-line. Tel. 678-937827.
- Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrik ematen dira DBH, Batxilergo eta Selektibitate prestakuntzako ikasleei. Antzeko ezaugarriko 4 laguneko taldeak gehienez. Gaintitu dutenen indize handia. Urte askotako esperientzia. Tel. 615-705945..
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika, etab. eko klaseak ematen dira. Banakako klase egokituak edo 2-3 ikasleko taldekoak. Goizez ikasteko aukera. Tel. 677-592509. Alberto.


**688 62 76 89**

publizitatea@etakitto.eus

## Eibarko erdigune berria



Neinor Homes sustatzailea **ARRATE HOMES** merkaturatzearekin jarraitzen du. 82 etxebizitza berrien promozioa egingo da Eibarren eta bertako bizilagunek gimnasioa eta sukaldea duen komunitate lokala izango dute erabilgarri

### ARRATE HOMES HIRIAREN ERDIGUNEAN DAGO,

Caliseo Antzokiaren, Errebal plazaren eta eraikiko den erabilera anitzeko zentro modernoaren ondoan. Zentro horrek udal-merkatua eta mota anitzeko gizarte eta kultura ekitaldiak hartuko ditu, gune hori herriko erreferente bihurtuz.

### PROIEKTUA INDEPENDENTEAK DIREN LAU ERAIKINETAN

garatuko da, beheko solairua, sei altuera eta terraza zabal eta argitsuak dituzten atikoekin. Arrate Homes osatzen duten eraikin berriek, lehendik daudenekin batera, zaindutako diseinuzko plaza osatzen dute, sarrera emanez etorkizuneko jabeek erabili ahal izango dituzten gimnasioari eta sukaldea duen komunitate-lokalari.

### ARRATE HOMES ETXE-AURRE AIREZTATU DOTOREKO

multzo arkitektonikoa da eta, material hautaketa arduratsuari esker, eguneroko bizitza kalitate gorenarekin, bizitzeko aukerarik eskaintzen du. Promozioak Breeam iraunkortasun-zigilua izango du eta domotikako aurre-instalazioarekin dator, kostupean pack domotikoa eskuratzeko aukerarekin.



**ARRATE HOMES-EK 1 ETA 4 LOGELA ARTEKO ETXEBIZITZAK** eskaintzen ditu, bezeroen eskariak asetzeko. Argia, orientazioa eta antolamenduak ahalik eta gehien optimizatuz diseinatu dira etxebizitzak. Logela nagusia suite motakoa da, bainugela pribatua, pertsiana elektrikoa eta horma-armairuarekin. Etxebizitza guztiek terraza zabalak dituzte, bereziki handiak atikoetan.

INFORMAZIO GEHIAGO: <https://www.neinorhomes.com/promocion/arrate-homes>

**ERREBAL PROIEKTUAREN ONDOAN**

**Neinor Store:** Bidebarrieta, 6 - Eibar

**900 11 00 22 • [neinorhomes.com](https://www.neinorhomes.com)**




# UGaN klub



- aerobic-step
- areto-ziklismoa
- birtual ciclo
- birtual jarduerak
- fitness
- g.a.p.
- karate kids
- kiropraktikoa
- kore & h.i.i.t.
- kross train
- pilates
- power
- running klub
- seniors
- total train
- TRX
- yoga
- zumba

- APP BIDEZ ERRESERBA  
EGITEKO AUKERA

- BAITA BIRTUAL UGAN  
ZERBITZUA ETXETIK  
EGITEKOA ERE



**COVID-19 ARI AURRE**  
**EGITEKO OSASUN**  
**NEURRI GUZTIEKIN**

**20 URTETAKO**  
**ESPERIENTZIA**  
**ZEURE ZERBITZURA**